ARGIA

ETIOPIAKO TIGRAY

Beste sarraski bat isilduko al dugu?

30-33.orriak

#2.746 | 2021 / 09 / 19 | 3,90 €

Planetaren %30 babesteak zer ondorio ekar dezake?

12 I INGURUMENA

"Alkate hautatu ninduten, Nafarroako alkate emakume bakarra"

14 I TERESA SAROBE

Lurrikaren zauriak Mexikon, Shu Oteroren eskutik

24 I KOMIKIA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #266
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

HAITI

IRAULTZA ETA MENDEKUA

ARGIA.EUS/LARRUN

ARGIA

2.746 zenbakia I Irailak 19, 2021

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
10 I TEKNOLOGIA

AZALEKO ARGAZKIA:
B. RATNER / REUTERS

Iritziak

19 I IRATI LABAIEN EGIGUREN
20 I JUNE FERNÁNDEZ
21 I NEREA IBARZABAL SALEGI
21 I ITXARO BORDA
22 I ITZIAR MORENO MARTINEZ

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

40 I DENBORAREN MAKINA
41 I ARGIA KOMUNITATEA
42 I BIZI BARATZEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: ANA LAURA ALÁEZ
54 I BERANDUEGI

DANI BLANCO

24 I **SHU OTERO**
Voces de Chimalpopoca komikian Mexiko Hirian gertatutako bi lurrikara lotu ditu ilustratzaileak, testigantzak eta planeta habitatzeko eta bizitzak eraikitzeko moduen inguruko hausnarketak zuri-beltzean josiz. Jon Torner Zabalak elkarrizketatu du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 I NET HURBIL
Aldaketa baino gehiago, sistemak bere horretan segitzeko aukera dakar planetaren %30 babesteak
Jenofa Berhokoirigoin

14 I PERTSONAIA I TERESA SAROBE
“Fabrikako lanak ekarri zuen kontrabandoaren azkena”
Miel Angel Elustondo

30 I NAZIOARTEA I ETIOPIA
Nobeldun sarraskia
Axier Lopez

34 I GIZARTEA I OINHARRI ESKOLA
“Formazio politikoa berriro 'modan' dago, baina bakoitzak berea”
Ruben Sánchez Bakaikoa

37 I NAZIOARTEA I XAVIER VILA
“'Elebitasuna' etiketari atseden hartzen utzi behar diogu, kalte egiten baitigu”
Ot Bou Costa

44 I KULTURA I ARITZ GALARRAGA
“Galtzaile bihurtzen gara bizitzan aurrera egin ahala”
Kepa Matxain

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Onintza Irureta
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto
Azoka
Mikel Olabide
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus
Telefonoa
943371545
Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:
antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

BEGIRADA

Herrialdea 20 urtez okupatu eta odolustu duten Mendebaldeko gobernuek emakumeen erabateko zapalketa aukeratu dute talibanak zeinen gaiztoak diren munduari erakusteko. Eta horri erantzunez, talibanek nazioarteko prentsarentzat prestatutako antzezlana egin dute Kabulgo Hezkuntza unibertsitatean; Lege Islamikoaren araberako bizimoduari "emakumeen babesa" erakusteko. Izaera, izana eta generoa bera deuseztatzen dituen janzkerarekin inor emakume eta gizonen arteko segregazioari babesa ematea bitxi egiten zaigu. Baina are kezkagarriago beharko luke, Afganistan 'etsaian' hiyaba opresio gisa erakustea eta Qatar diktadura 'lagunan' kultura-bereizgarritzat saltzea.

JUAN CARLOS AXIER LOPEZ

Beste bi eraso homofobo, Gasteizen eta Ibarran

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Iraila hasieran eraso homofoboa egin ziotela salatu du Gasteizko gazte batek, eta egun berean beste eraso bat jazo zen Ibarran. Azkenaldian ugari dira ezagutzera ematen diren LGBTI kolektiboaren aurkako erasoak, eta zenbait adituk sektore tradizionalaren erreakziotzat jotzen dute.

Gasteizko gazte batek sare sozialen bidez salatu du iraila hasieran jasandako eraso homofoboa. Azaldu duenez, taberna batetik atera eta lagunekin bildu asmoz Foru plazara bidea hartutakoan jazo zen erasoa. Kalean barna zioala, gizonezko batek iraindu egin zuen, "marikoi zikina" esanez. Nork iraintzen zuen jakin asmoz biratutakoan, erasotzaileak ukabilkada jo eta lurrera bota zuela azaldu du biktimak.

Erasoaren ondotik antsietatea pairatzen ari dela jakinarazi du kaltetuak, baina ondoezaren erroak erasoaz harago doazela jakinarazi du: "Nazkatuta nago Twitter eta Instagram bidez Gasteizen izandako eraso homofobo kasuen berri izateaz. Ez dut ulertzen nola eta zergatik, maitatzeko edota izateko era desberdinengatik, pertsona batzuk irainduak sentitzen diren. Ez niri ez inori ez litzaioke halakorik gertatu behar. Larunbatean nire bikotekidearen eta lagunen beldurra, amorrua eta kezka ikusi nituen neure begiekin".

> **Jendarteko zati baten borrokak eskuin muturraren diskurtsoaren legitimazioa du orain, eta bataila sozial, kultural eta sinbolikoan dihardu**

IBARRAN ERE BAI

Tolosako Atarian irakurri daitekeenez, eta Itaiak azaldu duenez, Ibarrako erasoa irailaren 4 gauean gertatu zen, gizon talde batek hainbat gizon homosexualen aurka irainak, mehatxuak eta gatazka fisikorako saiakerak egin zituenean.

Tolosaldeko Itaiak sare sozialetan zabaldu duenez, "larunbat gauean zehar, gizon talde batek irain homofoboak, mehatxuak eta gatazka fisikorako saiakerak errepikatu zituen hainbat gizon homosexualen aurka". Emakumeen Antolakunde Sozialistak erasoa gaitzetsi eta babesa adierazi die eraso homofoboa jasan zutenei.

ECUADOR ETXEA

LGBTI Harrotasunaren Nazioarteko Eguneko manifestazioa, Bilbon.

LGBTI KOLEKTIBOARI ERASOAK, ESKUIN MUTURRAREN DISKURTSOAK LEGITIMATZEN DUEN ERREAKZIOA

Ugariak dira azkenaldian ezagutzera emandako eraso homofobo, lesbofobo zein transfoboak. Ez da denbora asko atzera egin behar Araban bertan gertatu eta ezagutzera emandako beste eraso homofobo batekin topo egiteko: abuztuan Amurrion pairatutako erasoa salatu zuen gazte batek.

Espainiako Estatu mailan ere, LGBTI kolektiboaren aurkako erasoei dagokienez, gertaera larriak jazo dira azken hilabeteetan. Erasorik muturrekoena 24 urteko Samuel Luizen hilketa izan da; uztailaren 3ko goizaldez Coruñan (Galizia) gazte talde batek emandako jipoiaren ondorioz hil zen.

Ana Requena Aguilar eta Cristina Armunia Berges kazetariek elDiario.es-en argitaratu duten artikulu batean "erreakziotzat" jotzen dituzte LGBTI kolektiboaren aurkako erasoak. Bertan azaltzen denez, artikulua osatzeko erabilitako iturriek ondoko irakurketa egiten dute: jendarteko zati baten borrokak eskuin muturraren diskurtsoaren legitimazioa du orain, eta bataila sozial, kultural eta sinbolikoan dihardu, oharturik aniztasuna eta berdintasuna irabazten ari direla.

LGBTI kolektiboaren aurkako erreakzioaren logika zertan datzan azpimarratu du Laia Serra abokatuak: "Argi dago mugimendu batek espazio publiko gehiago konkistatzen duenean lehia handiagoa dagoela sektore tradizionaletatik. Feminismoaren aurka gertatzen den gauza bera gertatzen da. Inoiz ez da izan feminismorik hain presente, eta horrek jarrera bortitzagoak dakartza". ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Hil aurretik

ARITZ GALARRAGA

Tradizio bilakatu da honezkero, irailarekin, egin beharko genituzkeen, edo egin beharko ez genituzkeen gauzen zerrendaren bat publikatzea. 35 urtetik aurrera egin beharko ez genituzkeen hamar gauza izan ziren lehenik; 40 urteak baino lehen egin beharko genituzkeen bost gauza gero. Tradizio guztiak bezala, honek ere badu absurdutik, baina era berean kontsolagarri zaigu, sentiarazten gaitu ziklo baten barruan. Beraz, eta Georges Perec imitatuz oraingoan, hil aurretik egin beharreko gauzen zerrenda osatzera nator. 50 eskatu zizkioten hari irratsaio batean, 1981ean; 37 esatera iritsi zen. 20 zerrendatzearekin konformatu beharko naiz ni.

Hil aurretik egin beharreko lehen gauza, 1. Bizi –bukaeran ere jar nezakeen, zutabe are hunkigarriagoa lortzeko–. 2. Biblioteka ordenatu, behingoagatik. 3. Erretzeari utzi. 4. Erretzen hasi, erretzeari utzi ahal izateko. 5. Zortzi orduz lo egin, eta ez bederatzi, hamar. 6. Denbora galdu, baina gutxiago. 7. Atzerriko hiri batean bizi, Arequipa, Ulan Bator, Timbuktu, izenagatik bakarrik. 8. Gesaltza Añana bisitatu. 9. Montaigneren *Entseiuak* eskuratu, hiru liburukiak, Eduardo Gil Beraren itzulpenean. 10. Montaigneren *Entseiuak* irakurri, hiru liburukiak, Eduardo Gil Beraren itzulpenean. 11. Zaldian ibiltzen ikasi, gero zalditik erori ahal izateko, Montaigne bezala. 12. Bigarren ahotsak egiten ikasi. 13. Arabiera ikasi, inoiz Estatu Islamikoarekin gurutzatuko banintz, nire larrua salbatzeko. 14. Bertso saio batera joan. 15. Zientzia fikziozko nobela bat idatzi, nik, imajinaziorik batere ez dudan honek. 16. Sugetzar bat idatzi, Goenkaleren hutsunea beteko lukeena euskal telebista publikoan. 17. Abesti baten letra idatzi, Ken Zazpik, Izarok, Mikel Markezek kanta dezan. 18. Niko Etxartekin afaldu. 19 Hilobi bat erosi, niretzat, Biriatun. Eta hil aurretik egin beharreko azken gauza, 20. Hil, ikusteko jendeak zer esaten duen nitaz; adibidez, tradizio absurdu, baina kontsolagarri bilakatu diren zutabe hauez. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Zor publikoa

COVID-19aren krisiari aurre egiteko Europako Banku Zentralaren zor publikoaren erosketa planean aldaketak iragarri ditu Christine Lagarde bankuko presidenteak: inflazioaren gorakadaren eta aurreikuspen hobeen aurrean, erritmo motelagoan erosiko dute zorra.

Abortua

Abortuaren despenalizazioari ateak ireki dizkiote Mexikon. Auzitegi Gorenak joan den astean ezabatu zuen Coahuila estatuko kode penaleko 196. artikulua. Haurdunaldia eten nahi duten emakumeei hiru urteko kartzela zigorra ezartzen zitzaien lege horrekin.

Irregulartasunak

Hipika lehiaketa egiten ari dira Iruñean, Udalak antolatuta. EH Bilduk dio prebarikaziotik hurbil diren irregulartasunak atzeman dituela ekitaldien antolakuntzan eta epaitegietara joko duela. "Argi dago zerbait ezkutatu nahi dutela".

Krisi klimatikoa elikatzeagatik auzitara

ERREDAKZIOA

Volkswagen, BMW eta Mercedes-Benz auto ekoizleen aurka egingo dute hainbat talde ekologistek. Krisi klimatikoa elikatzen dutela leporatuta, auzitara eramango dituzte, barne-errekuntzako motordun autoak 2030erako eraikitzeari utz diezaiotela eskatuz. Wintershall Dea petrolio-konpainia ere eraman nahi dute epaitegietara.

KUTSADURA ILEGALA?

Alemaniako Greenpeacek, Deutsche Umwelthilfe elkarteak eta Fridays For Future mugimenduko aktibistek abiatu dute bide judiziala. Klima krisiaren kalteak nozitzen ari garen bitartean eta etorkizunerako kalte handiak aurreikusten diren honetan, auto ekoizleek beste alde batera begiratzen jarraitzen dutela diote ekologistek. Klima krisia elikatzen ari direla eta hori ez dela legala argudiatu dute, Parisko akordioaren aurka doalako. Barne-errekuntzako motordun autoak egiteari uzteko planak azkartzea nahi dute aktibistek, eta 2030ean jarri dute muga. Hainbat ikerketaren arabera, Europar Batasunean jaurtitzen den CO2aren %30 garraio industriari dagokio.

AURREKARIAK

"Enpresa handiek gure baliabideak eta biloben etorkizuna suntsitu ez dezaten balio behar du justiziak", diote ekologistek. Hain juxtu, bide legalak Angela Merkelen gobernua behartu zuen lege klimatikoa hobetzera, joan den apirilean.

80 MILIOI TONA GAS

Wintershall Dea konpainia ere auzitara eraman nahi dute elkarte horiek, petrolioa eta gasa esplotatzeko gune berriak irekitzeari utz diezaion 2026 urterako. Urtero berotegi efektuko 80 milioi tona gas isurtzen ditu konpainiak airera, elkarte hauek salatu dutenez.

ANALISIA



Deserria

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

"Maketoa naiz eta arto nago". Hala zioen udaberri aldera auzoko pareta batean loratutako pintadak. Lerro hauen atzean denari irri bihurria atera zion esaldiak, baina oso bestelako irakurketak ere izan zituen. Bigarren zentzua izan zezakeen esaldia izatetik urruti, zentzugabekeria zeritzon askok, trauskilkeria. Sarera ere egin zuen salto pintaketaren argazkiak, beronen bueltako iritzi gehiago ezagutzeko aukera irekiz. Erdaldun baten kexa gisakoa izan zitekeela zioenik bazen –nahiz eta euskara erabili–, bere burua maketotzat duenak kexa euskaraz adierazi izanaz trufatzen zenik ere bai. Nire baitarako pentsatu nuen bazitekeela esaldiaren ironia tonua oharkabe pasa izana.

Arreta eman zidan ohartzeak pintaketa haren egilea gure ingurunetik at kokatzen zuela hainbatek, auzoan eta euskaraz idatzia egonik ere. Bazirudien gaur gaurkoz ere askorentzat maketoak *bestetasuna*, gu –zernahi dela ere hori– ez den hori, izaten segitzen duela. Urte hauetan guztietan tarterik izan ez balitz bezala behinola irain izandakoaz jabetu eta norbere identitatearen parte gisa onartzeko eta aldarrikatzeko, euskalduntasunarekin batera, zergatik ez. Batak eta besteak ez baitaukate zertan kontrajarriak egon. Ez ote da, hain justu, bestetasun horretara betikotzen dituen logikaz kexu izango pintaketa?

"Ez dakit nire gurasoek *destierro* moduan bizi izan zuten euren herrietatik alde egin eta mila kilometrora bizimodua topatzera behartuta egotea. Baina nire bizitza deserri huts legez bizi izan dut (...) Beste batzuena zen herrian jaio eta haztea da deserria. Betirako *trenak ekarritakoa* izatea da deserria". Sonia Gonzalezen hitzak dira, *Erreka Haizea* lanean jasoak, eta muturren parean jartzen diote bati maketoak *arto* egoteko izan ditzakeen motiboen artean bat aski potoloa: norbere herrian arrotz izatera kondena. Konplexurik gabe maketo gisa identifikatzerakoan harrotasuna ordez *artotasuna* besarkatzera eraman dezakeena, ondoriozta dezaket.

Orain gutxi irakurritako iritzi artikulu baten harira gogoratu dut pintaketaren pasartea. Aipatu idatziak euskararen egoeraren pagaburu bilakatzen zituen migratzaileak, "inmigrazio masibo" gisako terminoak erabiliz eta hala izendatzen zenari "aurre egin beharraz" mintzatuz. To! Atzerritarrek euskara kaltetzen dutela defendatzeko, industrializazio garaiko migrazio fluxuak euskara urritu izanaren argudioa zerabilen autoreak. Puntu horretantxe oroitu nuen garai hartan etorritako norbaiten ondorengoak egindako auzoko pintaketa. Irakurtzen ari nintzen diskurtsoa hedatzearen arriskuak ez ziren gutxi eta edonolakoak, baina bakarra aipatzearren –eta inolaz ere ez larriena–, beste belaunaldi bat kondena zezakeen bere herrian bertan deserrian sentitzera, *beste* izatera.

Aniztasunari tokia egingo dion eta euskara kohesiorako –eta ez diskriminaziorako– erabiliko duen herria bada nahi duguna, urgentziazkoa zaigu gisako diskurtsoei bidea moztea. Kanpotik etorri(ko) direnen ondorengoek biharko egunean paretak *sprayatuko* badituzte, *artotasuna* adierazteko baino, harrotasuna adierazteko arrazoi gehiago izan ditzaten. ●

%100

igo dira etxebizitza bahiketak Nafarroan, eta %215 EAEn. 41 etxebizitza bahiketa egon dira EAEn 2021eko bigarren hiruhilekoan; 2020an baino 28 bahiketa gehiago egon dira. Nafarroan, %100 igo dira. Horrela adierazi du Espainiako Estatistikako Institutu Nazionala.

%12,5



ume gutxiago jaio da EAEn urteko lehen hiruhilekoan, iazko datuekin alderatuta. Guztira 3.298 haur jaio dira, Eustatek emandako datuen arabera. 30-34 urte artean erditu dira emakume gehienak.

20

langile hil dira maiatzaz geroztik lan istripuetan Euskal Herrian, 46 urte hasieratik. Bost egunetan hiru lan heriotza izan dira joan den astean, Berriobeitin, Zanbranan eta Igantzin.

"Minbizia ez da borroka kontua, ekaitza pasa beharra dago"

AINARA ALBIZU
40 urteko urnietarrak minbizia dauka. Bizitzak eman dion ostikoaren aurka ari da borrokatzen.
AIURRI ALDIZKARIA (2021-09-10)

"ESTATUAREN ESTOLDERIA GUZTIA AGERI-AGERIAN GELDITU DA AUZI HONETAN"

JULEN ZELARAIN
13/13 sumarioko auzipetuen izenean, Donostian egindako manifestazioan.
2021-09-11

"Hiri huts batean, Hazparne dinamizatzeko gunea sortu nahi genuen. Ekintza ilegal bat hautatu badugu ere, elkarrizketa eta negoziazioa beti hobetsi ditugu"

HAZPARNEKO TTATTOLA GAZTETXEA

TEKNOLOGIA

Chromebook-a norentzat da tresna bat?

DIANA FRANCO

Koadernoak, arkatzak... ikasleentzako tresnak dira. Ordenagailuak ordea ez dira berdin ulertzen. Gainera, ikastetxe askorentzat aukera bakarra dago: Chromebook-a. Irakasle, ikastetxe eta Google-entzako tresna bezala diseinatu diren gailuak dira, ez ordea ikasleentzat. Chromebook-ek irakasleentzat konplexutasuna txikitzea dakar, ikastetxeentzat kontrola handitzea, arazoak eta kostuak murriztuz, eta Google-entzat bere negozio eredua dibertsifikatzeko aukerak handitzea. Baina gurasook bi ardura ditugu buruan: behartuta gaudela gure haurrak Google mundura aldatzera, eta gure haurren ikasteko eta harremantzeko moduak enpresa pribatu honen esku egoteak arriskuak izan ditzakeela.

2020. urtean Erresuma Batuan bigarren hezkuntzako ikasketak ebaluatzeko Ofqual algoritmoak %40 jaitsi zuen zenbait ikasleren noten aurreikuspena, irakasleen ebaluazioarekin alderatuta. Jaitsiera gehien igarri zuten ikasleak baliabide gutxiko ikastetxeetakoak izan ziren, algoritmoarentzat ikastetxea arrakastarako aldagaia baitzen eta baliabide gutxiko ikastetxeetako ikasleen gain errendimendu bajurako joera definitzen zuen. Zorionez, algoritmoa auditatu eta atzera bota zuten.

Eremu digitalean gure ikasleen jokabideek sortzen dituzten datuekin elikatuta eta auditatu ezinik hezkuntzan erabiltzen ditugun plataformen adimen artifiziala eta algoritmoak noraino izan daitezkeen gure alaba-semeen etorkizunerako oztopo pentsatzen nabil azkenaldian. Beharbada plataforma horiek alabak egindako bilaketen emaitzetan eragina izango dute, bere etorkizuneko aukerak baldintzatuz. Cathy O´neil matematikan doktoreak hala dio *Suntsiketa masiboko arma matematikoak* liburuan: "Konturatu barik bazterkeria sustatu dezakegu ez badugu gai honetan arreta jartzen". Chromebook-a ez dut nik ikasleentzako tresna bezala ulertzen, haur eta gazteek euren etorkizunean eragiteko aukera gutxiago ematen dizkien gailu bezala ulertzen dut, ordenagailuarekin alderatuta. ●

Isun erraldoia Whatsappentzat

JOXE ROJAS / TEKNOPATAREN TXOKOA

Datuak babesteko Irlandako Batzordeak, DPCk, 225 milioi euroko isuna ezarri dio Whatsappi, datuak babesteko araudi europarra urratzeagatik. Zehazki, arazoa da Whatsappek ezkutatu egiten duela zer eta zenbat datu pertsonal partekatzen duen Facebookekin. Facebookek Irlandan dauka erregistratuta Europa osorako jarduera garatzen duen delegazioa, eta beraz, lege aldetik Irlandako Gobernuaren menpe dago Facebook eta haren jabetzakoak diren Whatsapp eta Instagramen jarduera Europan.

Isuna 2018an hasitako ikerketa baten ondorio da. Zehazki, DPC batzordea urte horretan hasi zen ikertzen nola tratatzen dituen Whatsappek bere erabiltzaileen datuak, eta batez ere, zer prozedura jarraitzen duen datu horiek jabe duen Facebook enpresaren esku jartzeko. Zigorra DPCk inoiz ezarritako isunik handiena da, eta Europako pribatutasun araudi berriaren ondorioz enpresa bati jarritako bigarren handiena. 225 milioiko isuna ezartzeaz gain, agindu argi bat ere eman dio DPCk Whatsappi, erabiltzaileen datuak Europako legedia beteaz prozesa ditzan (Amazonek 746 milioi euroko isuna jaso zuen uztailean erabiltzaileen pribatutasunarekin lotutako arrazoiengatik).

Whatsappen azaldu dute ez daudela ados erabakiarekin, eta helegitea jarriko dutela, besteak beste isuna neurriz kanpokotzat jotzen dutelako. Duela urtebete, Facebookek Europan zerbitzua emateari utzi egingo ziolako mehatxua egin zuen, Europako araudi berriak eragotzi egiten baitio erabiltzaile europarren datuak Estatu Batuetako egoitza nagusira eramatea.

Irlandako batzordeak dio Whatsapp ez dela batere argia, ez erabiltzaile bakoitzaren zer informazio jasotzen duen, ezta informazio horrekin zer egiten duen azaltzeko orduan. ●

GORABEHERAK

Arbonako lurren salmenta gelditzea lortu dute ELB-k eta Lurzaindiak.

Eroslea behin betiko erretiratu da. Halere, eragileek Arbona okupatzen jarraituko dute, prozesua bukatu arte. Hain zuzen, erosleak salmenta ez du baztertu eta hiru milioi eurotan saldu nahi ditu etxeak eta lurrak.

Langileak esplotatu eta abusuak egin zizkien Irungo jatetxe bateko jabeak.

Mexikotik hiru langile legez kanpo ekarri eta esplotazio baldintzetan izan zituen lanean. Migratzaileen egoera zaurgarria baliatzea haiek esplotatzeko ez da berria, zoritxarrez. Abuztu bukaeran, enpresaburu bat atxilotu zuten Bizkaian, zortzi behargin esplotatzeagatik.

Jaizkibel konpainiaren 25. urteurrena gogoratu dute

FOKU / JON URBE

HONDARRIBIA / Koronabirusagatik desfilerik gauzatu ez den arren, Jaizkibel Konpainiak kaleak hartu ditu Hondarribiko egun handian, irailaren 8an. Elkarretaratzea egin dute alarde parekidea aldarrikatzeko, eta uztailean egindako erdibideko proposamena berriz plazaratu dute: datorren urtean alarde tradizionaleko konpainia bat gehiago izatea (22. konpainia).

Durango

Durangoko Azokak ere ateak irekiko ditu aurten; aurrez aurrekora bueltatzearen aldeko apustua egin dute antolatzaileek. 56. edizioa aforo mugatuarekin eta osasun neurriak beteaz egingo da, abenduaren 3tik 8ra. Iaz abiaturiko Azoka digitalari ere eutsiko diote.

Bertsotan



Irailaren 18an berriz abiatuko dute Xilaba bertso txapelketa Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan. Finala Donibane Lohizunen iraganen da, azaroaren 13an. Urriaren 2an berriz, Nafarroako Bertsolari Txapelketa abiatuko dute Izaban. Iruñean jokatuko da finala, azaroaren 28an.

ALDAKETA BAINO GEHIAGO, **SISTEMAK BERE HORRETAN SEGITZEKO AUKERA DAKAR PLANETAREN %30 BABESTEAK**

2022ko apirilean Txinan egitekoa den COP 15 goi bileran hartu behar lukete ondoko neurria: 2030 urterako planetaren %30 gune babestu bezala sailkatzea. Munduaren Iparreko agintariek begi onez ikusten dute neurria, baita ingurumena kaltetzen ari diren multinazional boteretsuek ere. Lehen begiradan arraroa... Kezka eta kexua eragiten die haatik eremu hauetan bizi diren herritarrei –usu indigenak direnak–, eta "kolonialismo berdearen" logika salatzen dabiltza. Azken hauen irakurketari so jarri gara.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Nazioarteko instituzio inportanteenak ados dira ondoko helburu handiari dagokionez: planetaren %30 "gune babestu" bezala sailkatzea 2030 urterako –izan erreserba natural, parke, monumentu nazional edota babesturiko paisaia gisa definituz–. Ingurumenarentzako Nazio Batuen Programaren azken datuen arabera, gaurko egunean Lurraren %17 dugu babesturik –orotara 20 milioi km^2.Ideia bat ukaiteko, Europak 10 milioi km^2 ditu–. Hots, hamarkada honetan eremua bikoizteko helburua mahai gainean dute. Apirilean Txinan egitekoa den Bioaniztasunari buruzko Nazio Batuen COP 15 gailurreko neurri gotorrenetakoa izanen dute eta iraila hastapen honetan ere Marseillan burutu Naturaren Munduko Kongresuan aipagai zuten –bertan finkatu dituzte COP 15ean gobernuei bideratuko zaizkien gomendioak–.

Bere horretan, helburua ederra eta ausarta dute: bioaniztasuna zaintzea eta faunaren zein floraren desagerpen bortitza mugatzea. Alta, kongresuaren parean militante ekologistek *Notre terre, notre nature* izeneko kontra-gailurra burutu zuten, helburu eder honen itzalguneak azaleraziz. Ekologisten kritikaz gain, Naturaren Munduko Kongresuaren diruztatzaileen zerrendak ere du neurriari buruzko mesfidantza areagotzen: Nutella, PNB Paribas bankua, Kering, Veolia, L´Oreal, JCDecaux eta beste multinazional anitz –guztiak berdin-berdin naturaren suntsitzaile gisa ezagunak–. Naturaren Munduko Kongresuan hainbat neurri aipatu bazituzten, planetaren %30 babesteko neurri horretan zentratu ziren kontragailurrean, "Naturaren kontserbazioa deskolonizatu" lema jarriz lehen edizio honi. "Planetaren herena babestutako eremu bihurtuz, beraien lurretan baimenik gabeko ehiztari bihurtzen dituzte indigenak. Kristobal Kolonez geroztik izandako lur lapurtze handiena genuke" dio Green Finance Observatory egiturako Frederic Hache irakasleak.

Azken finean, helburua bezain garrantzitsua dugu helburura heltzeko bidea. Bideari ez zaio nahiko begiratzen Hacheren arabera eta justuki, bidean dira kalte gehienak. Lehenik eta behin babestu nahi diren eremu hauetan –eta hauei esker– milaka eta milaka herritar bizi direlako. Sailkapena gauzatuz gero, orotara 300 milioi herritar lirateke desjabeturik eta mugiturik, Survival, Minority Rights Group International eta Rainforest Alliance Gobernuz Kanpoko Egituren (GKE) kalkuluen arabera.

Zehaztu beharrekoa da haien lurretatik kanporaturiko gehiengo zabala munduaren Hegoan dela eta gainera, hauetariko anitz herritar indigenak direla. Klima larrialdiari aurre egiteko neurri honen kutsu kolonialari buruz anitz idatzi izan du Guillaume Blanc historialariak, *L´invention du colonialisme vert. Pour en finir avec le mythe de l´Eden africain* ("Kolonialismo berdearen asmakuntza. Eden afrikarraren mitoarekin bukatzeko") liburuaren egileak. Ondokoa oroitarazten digu: "Europan, gure mendiak zaintzen dabiltzan artzain eta laborariak sostengatzen dabiltza Unesco, UICN eta WWF. Baina Afrikan, badu 60 urte indarkeriaren bidez lurraldeak naturalizatzen dabiltzala: deshumanizatzen. Gaur egun oraindik hamar milaka laborari eta artzain dira parkeetatik haizaturik, kontserbazioan berezitutako nazioarteko adituen begirada pean. Beste milioika dira zigorturik lurra landu izanagatik ala haien kabalak bertan alhatzeagatik".

AUTOKTONOEN EREMUETAN DUGU BIOANIZTASUNAREN %80

Mundua irensten dabilen sistema eraldatzeko asmorik ez dute agintari eta multinazionalek. Hori horrela, baliteke desmasia ttipitzeko bidea izatea ahalbezain bat guneren babesa. Baina egitekotan, bertakoen eskubideen errespetuan egin beharko da. Berme honen osagaiak argi ditu autoktonoen eskubideen alde borrokan dabilen Survivalek: Lurrari loturiko eskubide kolektiboak eta ohiturazkoak aitortu eta bermatu beharko dizkie bioaniztasunaren aldeko araudiak; eta hortik, gauzatu beharko dira indigenen eta lurrarekin harremanetan

BERTAKOAK KONTUAN HARTU GABE
planetaren %30 gune babestu sailkatuz gero, orotara 300 milioi herritar lirateke desjabeturik eta kanporaturik, hainbat Gobernuz kanpoko erakunderen kalkuluen arabera (Argazkia: Survival).

diren herritarren alde doazen neurriak. Hots, lurretik bizitzeko eskubidea, autodeterminazioa eta onarpen eta erabakimen librea segurtatu beharko zaizkie erreserba ala parke bihurturiko espazio hauetan aitzinetik ere bizi zirenei.

Bioaniztasunaren %80 autoktonoek okupaturiko lurretan kausitzen dugu. Datu honek balio digu ohartarazteko ez duela gizakiak bere horretan natura suntsitzen, baizik eta gure sistema kapitalistak. "Herri indigenek beraien lurrekiko dituzten eskubideak naturaren eta klimaren aldeko ekintzen erdigunean jartzean datza klima aldaketa borrokatzeko modurik eraginkorrena", irakurri daiteke kontra-gailurraren kari sorturiko webgunean. Munduko agintariak kontrako zentzura doaz: lurrarekilako lotura moztu, erbesteratu, haien autonomia suntsitu eta sistema merkatal eta monetarioaren menpe ezarri. "Kolonialismo berdea" terminoa erabilia da joera honen izendatzeko. Gainera, okerrena da behin eremua lapurtuz gero, gehienetan bertaratzen direla bestelako herritarrak: turistak zein estraktibismoan dabiltzan multinazionalak.

"NATURAN OINARRITURIKO SOLUZIOEN" TRANPA LEGALA

Sistemak bere horretan segitzeko bide gisa ikusten du lurrak babesteko estrategia hau Blancek: "Babesten dabiltzanak dira suntsitzen dabiltzan berak. Hori da garapen iraunkorraren inkoherentzia. Ez dute lortzen haienean suntsituriko natura salbatzen, eta horregatik salbatu nahi dute han, Hegoan". "Naturan oinarrituriko Soluzioak" deitu multzoan sartzen da sailkapen hau. Lehen aldikoz 2009an erabilitako nozioa, 2015eko COP21 topaketaz geroztik txertaturik dute desafio ekologikoari aurre egiteko estrategian, ekosisteman oinarritzen den soluzio multzo hau. Baina *greenwashing* edo zuriketa berdea dugu hau, naturari prezio bat jarri eta konpentsazio mekanismoari esker, Hegoko egitasmo berde hauen garapenari esker, Iparrean logika kutsatzailearekin segitu dezaketelako multinazionalek.

Hori jakinik errazkiago ulertzen da nolatan planeta hezur-muineraino ustiatzen dabiltzanek sostengatzen duten planetaren herena babesteko neurria. ●

Teresa Sarobe

LEHEN ALKATE ANDREA NAFARROAN

FABRIKAKO LANAK EKARRI ZUEN KONTRABANDOAREN AZKENA

Nafarroa, 1983ko maiatza, udal hauteskundeak. Osatu dira alkatetzak, nagusitu dira batean batzuk, bertzean bertzeak. Etxalarren, errateko, independenteen kandidaturak lau zinegotzi ditu, eta hiru ditu Herri Batasunak (HB). Teresa Sarobe hautatu dute alkate, Franco ondoko lehen emakume alkatea da Nafarroan.

MIEL ANGEL ELUSTONDO ZALDI ERO

1983an, udal hauteskundeak Nafarroan, eta berrien artean egunkari aunitzek azpimarratu zuten bat, emazte bat izanen zela Etxalarko alkate, erran nahi baita, zu, hautagaitza independente bateko buru. Nola heldu zen hura?

Etxalarko usategietan jatetxea zeukan emakume batek erran zidan lehenbizian: "Zer, ezarriko zaitugu zerrendan?". Nik Antonio [Sansinena] senar defuntuari galdegin nion, hura alkate izana baitzen lehenago, 1973tik 1975era. Franco hil zelarik, bera zen alkate. Fabrikan lan egiten zuen, eta idazkariari ere exijitu zion lan egiteko, zeren eta etortzen baitzen goizeko hamaiketan-edo eta sartzen zen zuzenean ostaturat hartzera lehenbiziko kafea. Eta, noizbait etortzen zen emakume bat baserritik, bi oreneko bidea eginik, kasik Baztan gehiago baita Bortzirieta baino, jaiotza-agiria idazkari hari galdegitera, eta hark erraten zion etortzeko ondoko egun batean! Idazkari hark bazuen laguntzailerik, baina deus ez. Alfer-alferrik zen. Orduan, Antoniok erran zion ez zuela hura ametituko, lan eginarazi zion, eta, ondoko aldi batean, okasioa izan zuenean, idazkari hark bengantza hartu zuen gureak ziren lur-sail batzuen alderat, eta auzitara jo zuen Antonioren kontra. Hondarrean, senarrak dimisioa eman zuen.

Eta etxean esperientzia hori izanagatik ere, zuk baietz erran zenion emakume hari?

Etxean galdegin nuen, eta baietz erran zidaten, izanen zela bizi-esperientzia berri bat. Aurkeztu nintzen, eta irabazi genuen. Alkate hautatu ninduten, eta, denbora hartan, 300 milioi pezeta sartu ziren Etxalarren. Alkate emakume bakarra Nafarroan. Alkate nintzela, egin zen bilkura bat Santiago de Compostelan (Galizia), eta han ziren Frantzia, Belgika eta Espainiako eta Europako leku aunitzetatik etorritako emakumeak, udaletan-eta kargu politikoa zutenak. Baziren Iruñetik-eta joandako hiru zinegotzi, baina ni nintzen alkate bakarra. Han, laguntza galdegin nuen, uholdeak izanak baitziren 1983an, ez Bilbon bezain makurrak, baina Etxalarren ere aski makurkeria egin baitzuen urak.

Eta, zer gisa esperientzia?

Oroitzen naiz alkate hautatu ondotik

Teresa Sarobe Etxeberria

ETXALAR, 1940

Teresa Sarobe Etxeberria (Etxalar, 1940), Franco hil ondoko lehen alkate andre izan genuen Nafarroan. Badu urguilu zuzen bat, hainbat sos bildu ahal izan baitzituen herrira. Ez zen dena gozo izan, ordea, gogotik estutu baitzuten ezkerretik, mehatxu, telefono dei eta bertze. Bertzalde, William Douglass antropologo amerikarrak Etxalarren egindako ibiliaren lekuko zuzena da, 1960ko hamarkadaren hasieran etxekoen Buxungoborda baserrian hartu baitzuten. Teresa Sarobek aunitz urte bizkarrean, historialari behar luke, unibertsitate doktore zailduaren almazena baitu bere barnean gordea.

bilkura egin genuela Beran, han izan zen [Luis] Roldan, Espainiako Gobernuaren ordezkaria Nafarroan sasoian, eta bertze bilkura bat izan zela Etxalarren, saneamendua hobekitu nahi baikenuen, euria zelarik ura beti eskapatzen baitzen erreka batetik eta bertzetik, estolderiatik eta toki guzietatik. Etxalarren bilkura izan zelarik, usategietara bazkaltzerat gomitatu nituen hango jendeak. Baziren arkitektoa, ur eta herri-lanetako teknikariak, ingeniariak... jende aunitz. Bazkaltzen ari ginelarik solastatu nintzen batzuekin eta bertzeekin, eta jakin nuen bazirela han eta hemen laguntzak, Nafarroako Gobernuarenak, ur partzuergoarenak, batarenak eta bertzearenak, eta guzira sartu ziren Etxalarrerat 300 milioi saneamendu guzia berritzeko. Etxalarrek ez baitzuen sosik gisako obratzar handi bat egiteko. Eta are gehiago, obra haren %100 egiteko bakarrik ez, kaleak zolatzeko dirua ere bildu genuen. Hondarrean, obraren %106 bildu genuen! Victor Manuel Arbeloa sozialistarekin ere izan nintzen. Beharko, sosa atera nahi banuen herriarendako!

Hautagaitza independentean izan zinen, baina independenterik bada?

Nik ez dakit gauzak nola diren bertze herrietan. Ni independente nintzen, hori erraten ahal dut. Baina antieuskalduntzat tratatu ninduten, *antivasca* erraten zuten. Zertaz, ordea? Zerengatik ez nintzen eurek nahi zuten bezalako euskalduna! Nahi zuten aunitz gauza, baina niri ez zitzaidan posible iruditzen. Erraten nien: "Ni *antivasca*? Horregatik dituzte nire seme-alabak halako izenak! Lorea, Aitor eta Amagoia! Ezetz jakin zuek nondik heldu diren izen horiek!", haiek ez baitzekiten Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* liburutik hartuak nituela. "Zuek ez zarete euskaldunak ez deus!", erraten nien nik ere.

> ***"Ama haurrekin etxerat etorri zelarik, senarrik gabe oraindik, etxean zituen sos guziak kendu zizkion poliziak. [Meliton] Manzanas zen"***

Etxalarren bertan sortua zaitugu, baduzu familia istoriorik.

Jakin duzu zerbait ere! Jauregiberrian sortu nintzen ni, hori baita etxe bat, Agerretik pixka bat aitzinago. Etxe ederra, nahiz orain hondatua den. Lau senide izan ginen, ni laugarrena. Aita eta ama esposatu ziren 1929an, eta 32an sortu zen lehenbiziko anaia. Ez baitzuen soldadu egin nahi, joan zen Txilerat. Nahi izandu zuen Ipar Amerikarat joan, baina Bilboko kontsulatura joan, eta galdegin zioten ea ezagutzen zituen ardiak. Hain xuxen, etxean bagenituen behiak, bagenituen ahuntzak, bagenuen denetarik, baina ardirik ez! Ardirik ez genuen izandu behin ere. Galdegin zioten zenbat hortz zituen ardiak, ea noiz kanbiatzen zituen hortzak... Eta deus ez jakinki, kontsulatuan bota zuten gibelerat. Gehiago deus erran edo egin gabe, gibelerat.

Hori baino lehenago, zuen aitaren kontua ere bada...

Aitak, Anjel Sarobek, joan nahi izandu zuen Frantziarat, Espainiako gerra denboran. Ama ere igorri zuten hara, bi haurrekin eta haurdun, hirugarrenaren esperoan, eta hantxe gelditu behar izandu zuen familiak, Frantzian. Gero, nire esperoan zegoelarik, ama Etxalarrera etorri zen berriz. Handik pixka batera, gerra hasi zen Europan! Aita etorri zen berriz etxera, eta hemen sartu zuten preso, errefuxiatu izan zelakoz, edo iheslari. Beharrik, bazen jende ona ere Etxalarren, eta lagundu zuten gure familia.

Eta Meliton Manzanasen afera?

Bai, bada. Ama haurrekin etxerat etorri zelarik, senarrik gabe oraindik, etxean zituen sos guziak kendu zizkion poliziak. [Meliton] Manzanas zen. Gero hil zuten Irunen polizia hura. Etorri hona eta adio! Dirua kendu! Bi mila pezeta edo omen zituen gure amak. Hemen bazen polizia bat, buru, eta igandero etortzen zen gure ostaturat, harekin ez zen aferarik, baina Manzanas etorri baitzen gailen, gure etxerat joan ziren eta han harrapatu zuen diru guzia eraman zuen. Akabo! Manzanasek bazituen eskubideak alde guzietan, errepidean, kaminoetan, baserrian, karrikan, bazter guzietan. Bertze poliziak, hemengo buruak, beti izandu zuen kezka, zerengatik dirua eraman zuen Manzanasek gure etxetik. Ni alkate nintzelarik oroitzen naiz nola eskribitu zidan gutuna hemengo polizia izandako hark, beti izandu zuela kezka

bere barnean. Igandero etortzen zen gure ostaturat, lagunekin partida jokatzera. Eta kezka zuen bere barruan.

Guardia zibil, militar, karabinero... denetarik izan zen Etxalarren sasoi batean.

Bai, hemen bazen denetarik. Baziren soldaduak, guardia zibilak, poliziak, abiaziokoak, asaltokoak... denetarik bazen Etxalarren. 3.000 ere bai, hemen frontera baitzen! Eta guardia zibilak esposatzen ziren herriko neskekin. Baziren familiak, hiru neska, hiru guardia zibilekin esposaturik. Neska haien anaiak kontrabandista, eta hiru koinatuak guardia zibilak. Eta bizi ziren batzuk bertzeekin! Horrela zen orduko denboran. Gauza normala zen.

Barkatu, Teresa, euskaldun hutsa zara, baina hor zabiltza euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara...

Nola heltzen den nire burura, solastatzen naiz batean edo bertzean... Gilermok dio hagitz euskara bizia dudala, aunitz balio duela, baina horrela nabil, batzuetan euskaraz eta bertzeetan gaztelaniaz.

Gilermo?

Nola erraten duzu zuk? William Douglass. Badakizu nor den, doike. Hemen Douglass Gilermo baitzen, ez William, ez Bill, Gilermo bertzerik ez. Etxalarrerat etorri zelarik, 1964an hor nonbait ere, sartu zen gure aitzineko ostatura, eta galdegin zuen ea non harrapatzen ahal zuen etxe bat. Ostatukoak gure izeba deitu zuen orduan, eta galdegin zion Agerrea etxea libre izanen ote zen Gilermorentzat. Eta baietz... Agerreakoak ez ziren nornahi, etxe hartakoak Amaiu-

PORTUGESAK

"Behin, 18 urtetan ni, bakarrik nintzen baserrian, gosaltzen. Sumatu nuen kanpoan solasa. Leihotik begiratu eta gizon batzuk, gure arboletatik piku jaten ari. Goseak. 'Zer egin behar dut? Harrapatzen ahal naute hemen, ni bakarrik!'. Hartu eta zakua paratu nuen burutik, kakola bazka hartu bizkarrean eta joan nintzen belartegirat ziztuan! 'Segitzen banaute ere, mendian beheiti ez naute harrapatuko!'. Izutzen ninduten portugesek. Ametsa ere egiten nuen haiekin".

SOSA

"Jendea fabrikan hasi zelarik, dirua irabazten zuen, baina irabazi arabera gastatzen zen, ez zen dirurik altxatzen ahal. Amerikan bai, han artzaina mendian baitzen beti, eta altxatzen zen dirua. Nire senarra ere Kalifornian izandu zen hiru urtean, baina hemengo fabrikak ireki ondotik, ez zuen balio hara joatea".

JOHNNY TTIKIA

"Gilermo [William Douglass] Buxungobordan izan zelarik, hantxe izan zituen emaztea, Patrizia, eta urtebeteko haurra, Johnny. Gu euskaraz solastatzen ginen, eta haurrari ere euskaraz. Haren gurasoekin espainolez, baina Johnny ttikiari euskaraz, eta Buxungobordan egin zuen urtean, euskaraz erraten geniona aise konprenitzen zuen hark, eta solas batzuk ere egiten zituen".

Azken hitza

TRANPA, BEHIN

"Izan zen hemen bat, tranpa egiten zuena. Erraten zien portugesei: 'Joan handik, gero hemendik, eta Frantzian izanen zarete bihar". Eta gezurra! Edo Belaten uzten zituen, edo Elizondon, edo bertze nonbait. Tranpa egiten zuen. Portugesek jakin dute, eta, behin, harrapatu dute tranpa egiten zuen hura, eta xehatu dute joka! Xehatu! Tranpa behin egiten ahal da, baina ez aunitzetan".

rren borrokatu ziren! Gilermo etxe horretan bizi izan zen lehenbizi, baina gero joan zen gure lehengusinaren baserrira, Buxungobordara.

Etxalar eta Aulesti hartu zituen tesian ikergai Douglassek.
Bai, hemen izan genuen zenbait denbora, eta gero ere, etortzen zen aldiro. Oraino etortzen da. Oroitzen naiz erraten zuela Etxalarren zelarik jendeak sobera ongi tratatzen zuela, baina ez ziola deus kontatzen. Egin baitzuen ikerketa, baserri baterat joan eta galdegin eta galdegin zebilen beti. Eta jendeak, bada, ez zuen aise konprenitzen Gilermoren lana. "Errazu, baina amerikano honek zerengatik du hainbertze galdegin beharra? Berak ez baitu deus erraten!". Eta, ondoko aldi batean, gauza bera: "Hemen izan da gizon hori, eta galdegin du gure etxean seme-alabak zenbat diren, ea herentzia nori emana zaion, eta ea baserriaren edo etxearen eskriturak bagenituen, ikusi nahi zituela, eta hau eta hori eta hura". Aunitzetan ez genekien zer erantzun ere, eskriturak eta gauza horien gainean ez baitzen solasik egiten sasoi hartan. Eta Gilermo baserri batetik bertzera ibili baitzen, beti galdeka. Gizonak ematen zuen erreparo pixka bat, zerengatik hemen bazen kontrabandoa ere.

1960ko hamarkadaren erdi aldera bazen oraino kontrabandoa...
Bai. Beti bazen zerbait, edo behiak edo zaldiak edo parpaila edo penizilina edo belusa... Edo jendea! Errateko, Buxungobordako leihotik ikusten ahal zenuen nola pasatzen ziren portugesak bidexkan barna... Hura zen hura, lastimagarria! Zapata takoidunak jantzirik, eta mendira! "Igo gain hori eta bertze aldean Frantzian zarete!", erraten zieten portugesei, eta aunitzetan egia zen, baina aunitzetan gezurra!

Engainatzen zituzten?
Bai, bada! Beti ez zen engainua, batzuetan bazen istripua ere. Hemen gertatu zen mutiko bat, hogeita hiru urtekoa, kanalera erori eta hil zena. Erori zen, edo bota zuten. Inork ez daki. Erori ere, ez da estrainioa, orain kanala estalia dago baina orduan ez. Inork ez daki zer agitu zen. Mutiko portuges hori hemen enterratu zuten, eta bidali zitzaizkion familiari aldean zeramatzan sosak, diru-zorroak eta denak. Hemengo kanposantuan dago enterratua portuges mutiko hura. Ez du paratzen hor dagoela hila. Gilermo honat ailegatu zelarik gertatu zen hori. Portugesak orduan aunitz ibili ziren hemen! Gero, kontrabandoa finitu zen. Kontrabando-kontrabando handi hura, 1960an bukatu zen. 1962an ez zen hemen gehiago kontrabandorik.

Zerk ekarri zuen kontrabandoaren azkena?
Fabrikako lanak. Etxalarren kasuan, Lesakako ijesketa edo laminazio fabrikak. 1958an hasi ziren hura egiten, eta Beran, berriz, Palmadera zegoen, beste fabrika handia. Jendeak lanean hasi nahi zuelarik, fabrikara joan, lan egin nahi zenuela erran eta kontesta ematen zioten: "Etorri hadi bihar goizeko zortzietan!". Eta jendea harritzen baitzen hori aditzean, erraten zioten: "Nahi baduk lanean hasi, ongi, etorri. Behar diagu jendea". Enpresak goiti ari ziren hemen orduan. 1964 inguruan sekulako mugimendua izan zen. Baserritarrak, denak fabrikako lanera sartu ziren! Eta lehenago Bortzirietatik Amerikarat joaten zen jendea ez zen gehiago joan. Hemen dirua irabazten hasi zen jendea, eta kito Amerika. ●

Gorputzen (des)kontrola

IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Valladolid probintziako lur zabal bezain idorrean gindoazela heldu ginen harresiz inguratutako Urueñara. Herri txiki bezain bitxia da: 200 biztanle ez baditu ere, zortzi liburu-denda daude, literatur museo bat, baita literatura unibertsaleko ipuin ezagunen txokoa ere. Letrez sorgindutako herrixka hau liburu-hiri izendatu zuten 2007an, eta geroztik, bisitari ugari izan ohi du urte osoan. Bertako Primera página liburu-dendan eskuratu nuen Emilia Pardok –duela ehun urte zendu zen idazle eta kazetariak– emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan idatzitako ipuinen bilduma. Mende bat baino zaharragoak diren istorioek kutsu berezia dute, antzinako idazkeragatik eta kontakizunen krudeltasunagatik. Azken asteotan Afganistandik etorritako notiziek emakumeen egoerak 200 urte atzera egingo dutela iragarri dute. Halabeharrez, Pardoren idatziekin nolabaiteko lotura egin dut, egiazkotasunaren eta fikzioaren mugan dantzan dabiltzala baitirudite.

Lurralde horretan egindako eskuhartzearen arrazoi geoestrategiko eta interes ekonomikoak ukaezinak dira; gerra errentagarria da, besteen lurretan egiten denean bederen. Dena dela, interes jakin hauekin batera, bada emakumearen gain modu berezian behin eta berriz agerian geratzen den bortizkeria, hots, etxetik kanpoko jarduera ororen ezeztapena: etxetik kanpora lan egin ezina, ikasketen ukapena, gizonezkoak lagunduta atera beharra, edota gorputzeko azal osoa estaltzea. Izate hutsaren kontrola.

> Puta edota birjintasun hitzen etimologiaren bidez, besteak beste, egun ditugun usteak hankaz gora jartzeko gai ere bada Darder

Begirada zabalduz gero, askotarikoak dira munduan emakumeen gain egindako jazarpenen adibideak. Nazio Batuen Erakundeko 2020ko estatistiken arabera, 200 milioi neskatila mutilazio genitalaren biktima izan dira (eta beste 68 milioi mutilazio hori pairatzeko arriskuan izango dira 2030. urtea baino lehen), 60 milioi haur inguru ezkontzera behartuko dituzte, eta urtero 14 milioi nerabe baino gehiagok erditzen dute behartutako sexu harremanen ondorio gisa. Errealitatearen zertzeladak besterik ez dira datuok, baina egoeraren larritasuna islatzen dute, dudarik gabe.

Basakeria hauetako asko emakumearen sexualitatearekin lotu izan da hainbatetan. Izan ere, tradizioak okerreko sinesmen asko errotu ditu emakumearen desira alboratzeko. Adierazgarriak dira esaterako klitoriaren erresekzioa emakumearen fideltasunarekin eta bere purutasunarekin lotzen dituzten usteak, eta ezin ahaztu Evaren desiren erruz bota gintuztela paradisutik. Mireia Darderrek, psikologian doktorea eta emakumeen sexualitatean aditua denak, modu pedagogiko eta arinean azaldu ditu *Nacidas para el placer* liburuan emakumearen gorputza kontrolatu nahiak ekarri dituen ondorioak. Autorearen ustez, mendeetan esetsi eta zigortu dira desira eta plazera, delituak, zikinak, edota ezpuruak bailiran. Puta edota birjintasun hitzen etimologiaren bidez, besteak beste, egun ditugun usteak hankaz gora jartzeko gai ere bada Darder. Norberaren plazeraren potentzialtasuna aldarrikatu nahi du idazleak, sexualitatea besteen (gehienetan gizonezkoen) kontrol eta menpekotasunetik askatu eta desirari uztartzeko bidea proposatuz.

Utopikoak izan daitezke hainbat emakumerentzat Darderren proposamenak, eta urruneko eta arrotzak izan daitezke Pardo moduko idazleen kontakizunak beste batzuentzat. Baina liburuek Urueña mundura jalgi duten moduan, gu ere ezezagunak zaizkigun egoeretara garamatzate, hainbatetan ezinezko diruditen lekuetara. Norberaren burua eta gorputza askatasunaren gotorleku izan badaitezke, irakur dezagun, esna bada ere, utopiez amesteko. ●

Nork garbitzen du zuen etxea?



ANTTON OLARIAGA

JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Etxea garbitzen lagunduko dizuen pertsona bat behar duzue". Guraso naizenetik, hainbat senide eta lagun tematuta daude aholku horrekin. Nekatuta nagoela esaten dudanean, hori da otutzen zaien irtenbide bakarra: alegia, irtenbide indibiduala, pribatua eta merkantilizatua.

"Laguntza" eta "pertsona" eufemismoak erabili ohi dituzte. "Laguntza" deitzen diote lan prekarizatuari. "Pertsona" esaten dute, "emakume" esan ordez. Emakume horien gehiengoa, gainera, migratu eta/edo arrazializatuak dira; arrazakeriak haien lan aukerak murriztu dituztelako garbitzen dituzte "gure" etxeak. Gainerako emakumeen kasuetan ere erraza da diskriminazio faktore ugari topatzea.

Eta nori laguntzen diete andre horiek? Hain dira kaxkarrak etxeko langileen lan baldintzak, ezen mila euro ozta-ozta irabazten dugun bikoteok aise ordaindu dezakegula "laguntza" hori. Nire ustez, horrek klase ertainen langile kontzientziari kalte egiten dio; etxeko langilea izatea klase adierazlea delako. Familia heterosexualen kasuan, emakumeek bete ohi dute ugazabaren rola: patriarkatuak egotzi dienez lan hori, haien ardura da lana azpikontratatzea. Gizonezko bikotekideekin gatazka lausotzea da erabaki hori hartzeko motibazio bat.

Sara Lafuente Funes soziologoaren arabera (irakurri ezazue Katakrak-ek argitaratu duen *Mercados reproductivos* saiakera), Espainiako Estatuak dituen "etxeko enpleguaren zifra handiek adierazten dute desberdintasun ekonomiko handia dagoela, harreman heteropatriarkaletan sakonak direla eta bizitzari eusteko erantzukizun kolektiborik ez dagoela".

Lafuente Funesen esanetan, zaintza krisiaren osagai bat da, emakumeek esfera publikora mugitu diren bitartean, gizonek, estatuek eta jendarteak ez dutela esfera erreproduktiboari arreta jartzeko mugimendu handirik egin. Hortaz, zaintza ardurek feminizatuta jarraitzen dute, baina sistema ekonomikoaren bazterretan konpontzen dira: izan gainkarga, tentsio eta gatazka handiarekin; izan beste emakume prekarioak azpikontratatzearen irtenbidearekin.

Baina emakume feministontzat, azken irtenbide horrek ez du (edo ez luke) gatazka erabat lausotzen, kontziente garelako (izan beharko ginelako) genero, arraza/jatorri eta klase zapalkuntzak ardaztutako sektorea dela etxeko langileena. *Bateragarria al da feminista izatea eta etxeko langilea izatea?* artikulua idatzi zuen Beatriz Gimenok 2013. urtean eta argudiatu zuen, besteak beste, norbera bere zikinkeriaz arduratzea oinarrizko eginbehar etiko, feminista eta antikapitalista izan behar duela.

Aipatutako bi feministen ustez, gai honetan erreferente den Amaia Pérez Orozcoren ustez, etxeko langileen baldintzak hobetzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa: zaintza arduren banaketa parekidea sustatzea, zaintza sareen sendotzea eta lan merkatuko dinamikak iraultzea ezinbestekoa da. Iruditzen zait etxeko langile bat kontratatzen duenak (kontzientzia politikoa badu, behintzat) pentsatu beharko lukeela nola lagundu sakoneko eraldaketa horietan. Etxeko langileen borroka babestea izan beharko luke lehenengo pausoa.

Artikulu honek idaztea deserosotasun puntua eragin dit. Eztabaida honetan zaila da emakumeak jomugan ez jartzea. Horregatik, irakurtzen didazuen gizon ezkertiar eta profeministei bota nahi dizuet azken interpelazio zuzena: zenbat aldiz atera da gai hau zuen militantzia kideekin, kuadrilakoekin edo eskolako beste aitekin solasean? ●

Txikiagoak

NEREA IBARZABAL SALEGI
BERTSOLARIA

Animalion uzkurtze betierekoez aritu ginen behin orriotan, eta bete da profezia. Ipar Atlantikoko baleak txikiagoak dira orain duela berrogei urte baino; gaur jaiotako balea batek 1980an jaiotakoak baino metro bat gutxiago hartuko du, bataz beste. Itsas-biologoen arabera, zenbait arrain espezie gain-esplotaturengan atzeman izan dira antzerako aldaketak, baina hau da ugaztun handi batengan halako zerbait erregistratzen den lehen aldia.

Animalia erraldoi, arnas luzeko eta mugimendu geldoko horri zerbaitek ez dio uzten lasai hedatzen, berez itsasoa bezain zabal eta eder hazi zitekeenean alboetarantz zein luzetara, begiratze hutsez lilura gaitzan bere handitasunak eta loditu dezan denbora, eta bizitza bera. Badirudi estresa bezalako berba humano eta tranpatia ikasarazi diogula egunero itsasoa ebakitzen duten milaka ontziren zaratekin, eta arrantza-aparailuek eta sareek eragindako kateatze eta zauriekin.

Lasai hazteko bakea behar da, zentzu askotakoa. Bestela hesteak korapilatu egiten dira arrantzako sareak bezala, eta gorputzak erabakitzen du agian gauzak errazago joango zaizkiola txikiagoa izanda, uzkurragoa. Ikusezinagoa, azkenean. Biologoek hogei urte eman dituzte hegazkinen eta dronen bidez baleei argazkiak egiten, milimetroka neurtzen azkenean begi-bistako bihurtu dena. Neurtu ote daiteke gure txikitze apurkako hau ere airetik? Murriztuz baikoaz geu ere, buruz zein osasunez, lurrari txatalak lapurtu eta diru bilakatu ahala, eta diru horren arabera berrantolatu ahala espazioak, bizimoduak, eta, oro har, norbere izaeraren euste-hormak. Metro bat txikiagoak ez al dira bizitzak, irailetik irailera? Metro bat txikiagoak eztabaidak eta ideiak, geroz eta nekatuagoak eta argalagoak, pisurik gabeak. Berdin irudimena, berdin utopiak. Telebistatik dator ontzien burrunba, gure sentsoreak mindu eta noraezean uzten gaituena uraren erdian. Burrunbara ohitutakoan, badirudi isiltasuna hori dela, eta molde horrexen barruan hazten dira garunak, plastiko zatietan trabatutako dortokak bezala, metro bat estuago aurten, hamar urte barru auskalo. Balea kumeak ere txikiago jaioko dira laster, gerora alferrikako lanik ez hartzearren. "Txikitu gara orain ere", pentsatzen dut, ezerk ez gaituenean asaldatzen, ez heriotzek, ez gerrek, ez Poliziak jendea are gogorrago jazar dezan eskatzen duen jendeak, "txikitu naiz orain ere", pentsatzen dut, amore ematea jasangarriago zaidanean kontra egin ezinaren frustrazioa baino. ●

Mega-auzia

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Parisen ireki da, irailaren 8an, 2015eko azaroaren 13an, ostiral gau terrible hartan, Saint Denisko kirol-zelaiaren aldamenean, XI arrondizamenduko tabernen terrazetan eta Bataclan kontzertu gelan gertatu sarraskien antolatzaile susmatuen kontrako mega-auzia: 1.800 parte zibil agertuko dira, 131 biktimen familiak eta beste hainbeste lekuko ere. Auziak bederatzi hilabete iraunen du eta denek espero dute hogei auzipetuek argituko dutela amesgaiztozko gau haren haritik zer zuzen pasatu zen eta nola heldu ziren horraino.

Hemezortzi hilabete lehenago, Siriako Raqqa hirian ISISek planifikatu atentatuek Paris, eta geroago Brusela, odoletan utzi zituzten. Komando kideak oro ekintza-suizidio horietan hil ziren beren zinta-bonbak zartarazi zituztenean. Kideak oro, bere burua salbatzea eta Parisko atentatuen ondotik Belgikara itzultzea lortu zuen Salah Abdeslam salbu. Molenbeeken atxilotu zuten 2016ko martxoaren 18an. Geroztik preso dago eta mutu: ez dakigu oraino zergatik ez zuen bere burua zartarazi, gerrikoak ez ziolako funtzionatu ala azken momentuan koldarkeria zirrista bat pairatu zuelako? ●

Leihoak, lumak eta ateak

ITZIAR MORENO MARTÍNEZ
EUSKAL PRESO POLITIKOA

Leihotik begira igaro dut arratsaldea. Hauxe topiko galanta, ezta? Presoa, bere sorterritik urrun, herriminak jota, burdin hesitik haraindian begirada galduta, ordu luzez zeru karratuari so, erlojuak tik-tak... Ez, ez. Ez nago hodeien formei begira, ez; gabaiaren zain nago. Arratsaldero dator, baina gaur berandu dabil. Noski, kalatxoriak ez dauka erlojurik, arima askea da bera; ez dio kartzelariari, edo nagusiari, edo senarrari, edo bankariari, edo jaungoikoari konturik eman behar. No, beha hor, badator. Airean bizpahiru itzulipurdi osatu ostean, nire leiho-ertzerainoko lurreratze lerdena eskaini dit; burgoi horrek badaki aiduru nauela, bai horixe. Une batez, elkarri begira geratu gara, lekudenbora-logika ezaren linboan zintzilik. Emeki-emeki, barroteen artetik sartu dut eskua eta... zart! Ez-ez, ez dut lepotik heldu, lasai; luma bat baino ez diot hartu. Antxeta bera ere ez da kexatu, luma hori ekartzera etorri da-eta. Ene ninietara azken begiratu bat luzatu ostean ("Emaiozu erabilera egokia!", diost, baina ez dut asmatu aholkatu, erregutu edo mehatxatu nahi ote nauen), hegoak ireki ditu, luze, zabal, dotore; emaro hegaldatu da orduan, urrun, aske, eskuraezin. Hasperen batek ihes egin behar zidan... ez dut klixe gehiagorako astirik, ordea. Bada, goazen.

> Tinta ontzia ireki dudanean zalantza baten mehatxuak estutu nau. Bai...? Ziur...? Zer, nola, norentzat...? Eta gero...?

Ziegako mahaitxoaren aurrean eseri naiz. Sorbatzik gabeko aizto borobilarekin zorrozkailuaren torlojutxoa biratu dut, xafla txikia askatzeko. Jarraian, boligrafo bati tinta-hodia kendu eta, pizgailu batekin, puntari su eman diot. Ketzarra! Plastikoa bigundu denean, mugimendu bakarrean, garra amatatu eta xafla txertatu dut, listuarekin bustitako hatz puntekin estutuz. Listo! Apur bat erre naizen arren, poz-pozik begiratu diot ene maistra-lanari. Atzamarren artean biratu dut, pentsakor... Eskulanak egiteko kuterra ote da, ala arma zuri arriskutsua?

Arma-kuterra irmoki heldu dut azkenean: denbora lar eman dut leihotik begira, ekiteko garaia da! Bi aiztokada kolperekin zorroztu dut gabaiaren luma. Zist-zast. A, begira, idazluma bat daukat orain esku ahurrean. Tinta ontzia ireki dudanean, aldiz, zalantza baten mehatxuak estutu nau. Bai...? Ziur...? Zer, nola, norentzat...? Eta gero...? Tik-tak. Hmm. Bai, hori da. Arma-kuterra berriro jaso eta, oraingoan, idazluma erabat zorroztu dut. Zist-zast-zist-zast. Hmmm... A, bai, orain bai.

Punta ezin zorrotzagoa dut orain. Idazluma sarrailan sartu eta... Klik! Eskerrik asko, ARGIA, ate hau irekitzeagatik. Laster arte! ●

“Bo... kakingarria!”

Zu ere harrituko zara, edo ez. Poztu, edo haserretu. Baina ziur baduzula interesa eta zeresana. Jakin-mina eta irizpidea duzulako. Giroan zabiltzalako.

berria
zuk badakizulako

Shu Otero
ilustratzailea

“Lurrikarek azalera atera dute mexikar agintarien utzikeria”

2017ko irailaren 19an, 7.1 magnitudeko lurrikara batek Mexiko erdialdea astindu zuen. Shu Otero ilustratzailea (Sunbilla, 1995) Mexiko Hirian zegoen, lurrak dar-dar egin zuenean. Egun berean, baina 32 urte lehenago, 1985eko irailaren 19an, lurrikara are bortitzagoa sufritu zuen herrialdeak. Milaka gorpu lurpean, eta agintarien utzikeria azalean. *Voces de Chimalpopoca* komikian hainbat lagunen testigantzak jaso ditu Oterok, gure planeta habitatu eta bizitzak eraikitzeko mekanismoen inguruko hausnarketa josteko.

JON TORNER ZABALA DANI BLANCO

2017ko lurrikara gertatzearekin bat laguntza-lanetan hasi zinen. Eta hortik, komikia sortzera. Nola izan zen prozesua?

Komikira eramandako kronika periodistikoek beti erakarri naute. Lurrikara sentitu nuenean ordenagailu aurrean nengoen, proiektu grafiko baten inguruan lanean. Horrelako uneetan plan guztiak hankaz gora joaten dira, egunak joan egunak etorri, inguruan gertatzen ari dena baino ez duzu buruan. Pentsatu nuen hori guztia jaso nezakeela, testigantzak bildu, eta ondoren horiek zabaltzeko bidea topatu. Komikia egokia iruditu zitzaidan horretarako.

Zer ekarpen egiten du komikiak, alderatzen badugu adibidez idatzizko kronika batekin?

Oso subjektiboa da medio bakoitzak gutako bakoitzari zer iradokitzen digun. Nire irudipena da kazetaritza-lan batzuek, horrelako momentuetan oso garrantzitsuak izanagatik ere, erritmo biziegia dutela, eta ez duela denborarik ematen gauzak sakonago aztertu eta jendearen bizipenak azaleratzeko, ezta haien memoria kolektiboa nola higatzen ari den jasotzeko ere. Alde emozionalago hori ere islatu nahi nuen.

Geratzen zaigun sentsazioa da Mexiko dela herrialde kaotikoa. Gobernuaren utzikeria, eta horren aurrean komunitatearen indarra, auzolana, 1985ean nabarmenagoa izan zena 2017an baino.

Mexikok bai baititu ezaugarri oso bereziak. Batetik daude instituzioak, Gobernua, eta haren aginduetara aritzen den polizia; eta bestetik jendea, komunitatea. Bakoitzak krisi egoerari nola aurre egiten dion, zer babesten eta lehenesten duen, horiek bermatzeko zein mekanismo baliatzen dituen...

1985ean argi ikusi zen Gobernuaren helburua ez zela herritarrak laguntzea, baizik eta enpresak eta haien makinak salbatzea. Lurrikarak kolpatutako zonalde batzuetan utzikeria erabatekoa izan zen. Egunak pasa zirenez gobernuak esku hartu zuen arte, jendea bere kabuz antolatu zen. Eta horrek, gerora, mugimendu politiko sakonak ekarri zituen, sindikatu berriak sortu ziren... Kontua da 1985ean kalterik handienak izan zirela langile auzoetan, zonalde pobreetan, eta indar errepresiboek helburutzat zutela enpresen makina, diru, agiri eta bestelakoak erreskatatzea. 2017koak aldiz auzo-eraikin desberdinak kolpatu zituen, eta polizia, armada

BIRA ZAPATISTA EH

edota babes zibilaren erantzuna azkarragoa –baina ez horregatik eraginkorragoa– izan zen oro har. Horrek auzolana "anulatu" zuen apur bat, nahiz eta jendea konturatu zen, batetik, lurrikara batek zein zonalde astindu, erakundeen erantzuna modu batekoa ala bestekoa izango dela eta, bestetik, erakunde horiek lurrikara baliatzen ari zirela haien burua zuritzeko.

Poliziak eta armadak ospe oso txarra dute Mexikon, bistakoa da zergatik. Jendearen memorian bizi-bizi zegoen Ayotzinapako 43 desagertuen kasua... Maiz gertatzen da gauza bera, pandemia honetan ere ikusi dugu: larrialdi egoerak baliatzen dira berez helburutzat errepresioa duten erakundeak legitimatzen saiatzeko. Hedabideek ere laguntzen dute horretan, uniformedunak "heroi" gisa aurkeztuta beti.

Mexikoko komunikabide nagusien jardunak luzerako emango luke. Egunkari-zati asko jaso duzu komikian, narrazioan tartekaturik.

Hedabideak zertan ari ziren erakusteko egin dut. Komikian ikus daiteke nola 2017an bazegoen nolabaiteko tentsioa medio nagusiek eta sare sozialek zabaltzen zuten informazioaren artean. Biek dauzkate beren arriskuak, baina zehazki komunikabide handien jarduna hizpide hartuta, ikus daiteke badagoela narratiba ofiziala eraikitzen laguntzen duen diskurtso edo mekanismo bat, lotura duena 1985eko lurrikara gertatzean herritarrek errepikatzen zuten esloganarekin: "Fenomenoak naturalak dira, hondamendiak humanoak". Alegia, medioetan "hondamendi naturalak" aipatzen direnean behin eta berriro, albo batera uzten dira bizitzak eraikitzeko moduak eta horien atzean dauden erabaki politiko eta ekonomikoak, non zenbait gauza lehenesten diren –inbertsioen bidez, esaterako– eta herritar batzuek larrutik ordaintzen duten.

Sare sozialen kasuan, tresna potentea dira kalean gertatzen ari dena islatu, jendea koordinatu eta komunitatea babesteko; baina tentuz jokatu behar da, benetakoa ez den informazioa ere zabaltzen delako. Batzuetan zaila da horrelako tentsio egoera baten erdian, jendea beldur denean eta informazio bonbardaketa izugarria dagoenean, benetan zer gertatzen ari den ulertzea.

"Indarkeriaren gorakadarekin biziraupena are gordinagoa bilakatu da askorentzat Mexikon, eta horrek zaildu egiten du egoera konkretuetan jendeak komunitatea sortu eta elkar laguntzea"

Tentsio handiko momentu horietan, zein paper jokatzen dute botereak eta haren aginduetara dagoen poliziak?

Chimalpopoca auzunera gerturatu nintzen egunetako batean, poliziarekin liskarrak izan berri ziren. Jendea shock egoeran zegoen. Antsietate handiko momentuak dira, eta txinparta txiki batek guztia leherrarazi dezake. Ikusten duzu krisi egoeretan ohikoa den diskurtsoa saltzen ari direla –"Denok elkarrekin gaude honetan, Mexiko batua, Adorea"–, baina denbora berean oztopatu egiten dutela norberaren espazioa mantendu eta lanean jarraitzea, indarkeria dagoela leku guztietan, eta jendeari ez zaiola antolatzen uzten, sortzen doazen elkartasun sareak mozten doazela. Instituzioak txoko guztietan sartzen dira, herritarrek botere guztia galtzeraino.

Begiratu behar da Mexikok 1990eko

Chimalpopoca-ko ahotsak

Colonia Obrera auzunean, Mexiko Hiriaren erdialdean, Bolivar eta Chimalpopoca kaleek bat egiten duten lekuan. Hantxe zegoen Shu Oteroren komikiko azalean agertzen den fabrika, berun, kristal eta harri pila bihurtuta, 2017ko irailaren 19ko lurrikararen astinduari eutsi ez zioten eraikin ugarietako bat. Egun berean, baina 32 urte lehenago, 1985eko irailaren 19an, lurrak dar-dar egin zuen Mexikon, eta eraikin horren ahulguneak agerian geratu ziren. Agintariek, baina, erabaki zuten ez zegoela motiborik haren hezurdura indartu eta gorputza eraberritzeko. Egiaz, tamainako ezbeharrei aurre egiteko protokolorik ez izateak eta instituzioek agertutako utzikeriak erabateko kaosa eragin zuten herrialdeko bazter ugaritan, zeinak gizarte zibila bultzatu zuen auto-antolatu eta erreskate-lanak gidatzera, gorputz autonomo gisa.

2017ko lurrikara gertatu zenean, lau solairuko blokean zeuden arropa diseinatzeko tailer bat, oihal gordailua, opari eta jostailu inportatzaile bana, autoentzako segurtasun-kamerak fabrikatzen zituen konpainia bat, eta enpresari judutar batek erabiltzen zituen bulegoak. Hamabost lagunen gorpuak geratu ziren hondakin artean harrapatuta, datu ofizialen arabera: hamabi emakume (zortzi mexikar eta hiru taiwandar) eta hiru gizon (taiwandar bat, korear bat eta enpresari judutarra). Gehienek ordu asko ematen zuten lanean, eta soldata txikia jaso.

Eraikina erortzean, jendeak zioen jostun atzerritarrak ari zirela bertan lanean, eta memoria kolektiboak 1985era egin zuen jauzi. Orduko hartan, hondakin artetik, tailer klandestinoetan ari ziren jostunen lan baldintza negargarriak azalera atera ziren eta, hasiera batean, bazirudien 2017koak ere osagai berdin-berdinak zituela. Orduak pasa ahala jakin zen bazirela desberdintasunak bi kasuen artean, baina Shu Oterok komikian dioen bezala, oinarrian bazuten antzekotasunik: hildako asko lan baldintza negargarriak zituzten emakumeak ziren, eraikinak ez zituen beharrezko segurtasun neurriak betetzen, erantzukizunik ia inork ez zuen hartu bere gain, hedabideek informazioa ezkutatu zuten, liskarrak izan ziren laguntzera bertaratutako herritarren eta polizien artean, ustelkeria zantzuak, gobernuarekiko mesfidantza... Oteroren estreinako komiki luzea (*Voces de Chimalpopoca*. Astiberri, 2021) mintzo da "munstroa" deitzen dioten hirian lurrikarek eragindako zauriez.

Lehenengo pertsonan idatzitako kontakizuna uztartzen du 1985 eta 2017ko lurrikarak bizi izan zituzten hainbat lagunen testigantzekin. Bizilagunak, brigadetako kideak, 1985ean jostun bezala lanean ari zen emakumea, ama eta arreba galdu zituen gizona, kazetari bat... Dozenatik gora elkarrizketa grabatu zuen, eta horien lagin bat jaso du 222 orrialdeotan. Amarekin, zeina 1985eko irailaren 19an Mexikon zegoen, euskaraz mintzo da Otero komikian. Gainerakoan, narrazioa eta pertsonaia guztien aipuak gaztelaniaz daude. Antonio Altarriba izan du "aitabitxi"; hark egin dizkio zuzenketak, gomendioak eman...

hamarkadaz geroztik izan duen ibilbidea. Gobernuaren eta gizartearen arteko tentsioa beti izan da, baina azken urteotako gertaerek, narkotrafikoaren aurkako gudaren izenean egindakoek adibidez, instituzioen eta herritarren arteko harremanak gaiztotu dituzte, baita gizarte-loturak hautsi ere. Indarkeriaren gorakadarekin biziraupena are gordinagoa bilakatu da askorentzat, eta horrek zaildu egiten du egoera konkretuetan jendeak komunitatea sortu eta elkar laguntzea. Antolaketa ereduari buruz hausnartzen dute, badakite oinarrian zein arazo dauden, baina beste kontu bat da zer gaitasun dagoen elkartasunari denboran eutsi eta kontrabotere indartsua antolatzeko, edota azpiegiturak eraikitzeko.

"Brigada Feministak helburu argia zuen: 1985ekoa berriro ez gertatzea, alegia, lehentasuna ematea ez hondakin artean harrapatutako makina, agiri eta bestelako materiala salbatzeari, baizik eta jendea ateratzeari"

PAJAROPOLITICO / TWITTER

2017an eratu zen Brigada Feministako kidea, Chimalpopocan, agintarien ustelkeria eta matxismoa salatzen dituen pintaketa egiten.

FACEBOOK

Shu Oteroren estreinako komiki luzeak estilo "feista" duela irakurri dugu nonon. Eta egia da marrazkiak trazu lodi samarrekoak direla, baina eraginkor eta garbiak dira, eta zuri-beltzak ederki biltzen du lurrikararen osteko atmosfera.

Brigada Feministak aipatzen dituzu komikian.

Ez da kasualitatea Brigada Feminista auzune horretan antolatzea, zuzenean loturik baitago bertako memoriarekin. 1985ean, hainbat eraikin erori eta langile ugari hil ziren, emakumeak asko, jostunak, imajina daitekeen bezala ez zirenak lanean ari baldintzarik onenetan. Paperik ez, soldata irrigarriak... Eraikinak gainera ez zeuden egokituta hainbeste langile hartzeko, ezta lurrikara bati aurre egiteko prestatuta ere. Gertatutakoak zauri oso sakona utzi zuen auzoan, eta oro har hiriaren memoria kolektiboan.

Orduko hura oraindik ere gogoan du askok, lurrikarak eragin zuen txikizioagatik, baina baita gobernuaren utzikeriagatik ere, eta horri aurre egiteko herritarrek eratu zituzten laguntza-sareengatik. Esperientzia hartatik sortu zen adibidez "19 de Septiembre" jostunen sindikatua, genero perspektiba argi bat zuen lehenengoa. Mexikoko historia feministarentzat inflexio puntu oso inportantea izan zen.

2017ko lurrikarak zonalde bera kolpatu zuenean, non baziren jantzi-fabrika batzuk eta emakume ugari bertan lanean, jendearen gogoak 1985era egin zuen salto, eta hortik sortu zen Brigada Feminista, helburu argiarekin: 1985ekoa berriro ez gertatzea, alegia, lehentasuna ematea ez hondakin artean harrapatutako makina, agiri eta bestelako materiala salbatzeari, baizik eta jendea ateratzeari.

Nork zer lehenesten duen berriz ere.

Berez "naturalak" ez diren hondamendietan sarri ikusi dugu gauza bera, pasa den maiatzean urrutirago joan gabe. Hiriburuan metroaren pasabide bat erori zen, bizilagunek denbora zeramatenean ohartarazten arazo estrukturalak zitue-

Shu Oterok filosofia ikasketak ditu burutuak. Narrazioaren une batzuetan agerikoa egin zaigu, hausnarketen sakonagatik. Ilustratzaile nafarrak lotura estuak ditu Mexikorekin. 2017a baino lehen ere aritua zen bertan lanean, eta bere ama urte luzez bizi izan zen han. Azken urteotan hainbat gizarte mugimendurentzat egin ditu lan grafikoak, eta ARGIAn ere ezaguna egiten ari da bere sinadura.

la eta jausteko arriskuan zegoela, beste hainbat eraikin bezala. Zein auzotan zegoen ordea pasabide hori? Nortzuk erabiltzen dute metroa eta oro har garraio publiko merkea Mexikon? Bada, jende hori ez da lehentasunezkoa gobernuarentzat. 2017ko irailaren 7an, lurrikara handia baino hamabi egun lehenago, txikiago bat izan zen, eta komikiko azalean ageri den eraikinak kalteak sufritu zituen. Langile batek horien berri eman, baina inork ere ez zuen deus egin. Horregatik diot: zein punturaino da hondamendi bat "naturala"?

Horrek guztiak ez al du gizartean etsipen puntu bat sortzen?

Baietz uste dut, baina bestetik, jendeak ez duenez konfiantzarik Gobernuaren gain, herritar asko euren kontura moldatzen dira. Gaitasun miresgarria dute. Mexiko Hiria izugarri handia da, eta jendea ohitua dago egoerari komunitate txikietan aurre egiten, jakitun instituzioek ezer gutxi egingo dutela beraien alde. Kontua da azpiegitura handiak, trenbide edo errepide sareak esaterako, eskala altuago batean kokatzen direla, eta horien inguruko erabaki politiko-ekonomikoak beste batzuen esku daudela.

Lurrikaren eraginez, eraikinen zimenduak mugitu ziren moduan, higatu zen instituzioekiko konfiantza...

López Obrador (Morena) da gaur egun presidentea. Kuriosoa da, bada beste paralelismo bat 1985ekoaren eta 2017koaren artean. 1985ekoaren ondoren, batzuen iritziz orduan sortu ziren herri mugimenduengatik –ziur arrazoi gehiago badirela, baina tira–, aldaketa politiko handiak eman ziren. Eta 2018an antzekoa gertatu zen: PRI zegoen berriro boterean,

"Hedabide mexikarrak ezagunak dira horikeria edo morboagatik, indarkeria modu oso gordinean erakusteagatik. Argi nuen beste bide bat hartu behar nuela"

baina Morenak irabazi zituen hauteskunde federalak. Nik uste dut, dena den, gizartearen deskonfiantza sakonagoa dela, ez dagoela alderdi zehatz bati lotua, baizik eta sistematikoagoa dela, estrukturala. Gainera, ez da Mexikoko instituzioetara mugatzen. AEBekiko harremanak, "Norte global" delakoaren papera... Nabarmena da botere-falta sentsazioa, eta horrekin loturik ere badago hainbat elkarrizketatuk esan zidatena. Jende nagusiak, antolakuntza politikoetan parte hartze aktiboa izan dutenek, gazteen artean nolabaiteko despesperantza sumatzen dutela diote.

Goazen berriro komikira. Kontatzen dituzunak gordinak izanagatik, ez dago asmorik irakurlea negar malkotan itoarazteko.

Niretzat oso garrantzitsua zen hori. Hedabide mexikarrak ezagunak dira horikeria edo morboagatik, indarkeria modu oso gordinean erakusteagatik. Argi nuen beste bide bat hartu behar nuela. Batzuetan ezin da saihestu, historia aldatu beharko nukeelako hunkigarria ez gertatzeko, bizipen batzuk hain baitira gogorrak, hainbeste ukitu ninduten... Irakurlearengan emozio bat sortzen baino, saiatu naiz elkarrizketatuek egindako hausnarketak jasotzen, esateko zeukatena transmititzen.

Zuri-beltzaren aldeko hautua egin duzu.

Gustuko ditut zuri-beltzean kontatutako historiak, kazetaritza ukitu hori. Gainera, lurrikarak, eraikinak behera etortzea, hautsa, hondakinak... oso giro grisa da, eta gris tonu horiek gustatzen zitzaizkidan. Bestalde, garapen bisualerako lagungarria zait. Badira komikian "aliterazio grafikoak" deituko nituzkeenak. Zartadura baten irudia bihurtzen da bat-batean sustrai, lurrikararen lerro zinetikoak hurrengo binetan dira ez dakit zer... Erlazio bisual horiek ez dira planifikatuak, marrazten noan neurrian sortzen dira, eta zuri-beltzean errazago garatu ditzaket. ●

NOBELDUN SARRASKIA

Azaroaren 4an hasi zuen Etiopiako armadak Tigray eskualdearen aurkako erasoa, Abiy Ahmed lehen ministroaren aginduz. Hamar hilabete geroago, Etiopiako indarren sarraskiek eta sexu-krimenek –Eritreako tropen laguntzarekin– bi milioi pertsona baino gehiago etxerik gabe utzi dituzte. NBEren arabera, 400.000 pertsona gosete-egoeran daude, elikagaiak lortzeko ezintasunaren alarma mailarik gorenean.

AXIER LOPEZ

Etiopiako lehen ministro eta 2019ko Bakearen Nobel saridun Abiy Ahmedek –Eritrearekin bakea sinatu, preso politikoak askatu eta disidentzia politikoari eskua luzatzeagatik eman zioten saria– nazioarteko komunitatea zur eta lur laga zuen Tigrayren Askapenerako Herri Fronteari (TPLF ingelesezko sigletan) gerra deklaratzean. 27 urtez Etiopiako Gobernua eta aginte-postu ekonomiko eta militar guztiak gidatu dituen alderdi eta gerrilla da TPLF, Tigray-n herritarren babes handia duena. Boterera heltzean demokraziaz eta askatasunaz mintzo zen Ahmed, orain bere estatuko zonalde bati egindako blokeo zorrotza ari da bermatzen, Tigrayko sarraskiak ezkutatzeko.

Afrikan inoiz kolonizatua izan ez den herrialde bakarra da Etiopia, italiarren okupaziopean egondako bost urteak izan ezik (1936-1941). Biztanle gehienak biziraupeneko nekazaritzatik bizi dira eta askok ez du argindarrerako sarbiderik. Bere mugen barruan 110 milioi lagun bizi dira 80 etnia baino gehiagoren artean banatuta, bakoitza bere hizkuntzarekin. Horien artean, nagusiak dira Amhara, Oromo eta Tigray. Etiopiako biztanleriaren %34 oromoak dira, historikoki gehien zapaldutako etnietako bat –esklaboak izan ziren Hailé Selassié enperadorearen garaian 1930-1974, esaterako, amharak %27 dira eta Tigray-n bospasei milioi lagun bizi dira, herrialdearen iparraldean, Sudan eta Eritrearekin muga-mugan.

Duela hiru urte arte, Afrikan azkarren hazten ari zen ekonomia zen Etiopiakoa, eta nolabaiteko oasi gisa nabarmentzen zen, gatazkaz betetako Afrikako Adarreko auzokideekin alderatuta. Baina lasaitasun hori errotik da eten.

Abiy Ahmedek Oslon saria jaso zuenetik, oposizioko kideak eta kazetariak atxilotu ditu, herrialdeko hainbat eskualdetan aurretik zegoen nahigabea areagotu du eta, batez ere, Tigray-ko herritarren aurkako guda gupidagabeari ekin dio, "animaliak" direla argudiatuta. Gatazka armatuak dagoeneko bi milioi desplazatu baino gehiago eragin du, eta nazioarteko erakundeek aho batez salatu dituzte Etiopiako Gobernuaren ekintzak: zibilen hilketa ugari, herri eta hirien arpilatzeak, milaka errefuxiatu, muturreko gosete-egoeran dauden 400.000 pertsona baino gehiago eta, Amnistia Internazionalaren ikerketa batek salatu duenez, soldaduek eta milizianoek Tigrayko emakume eta neska gazteen aurkako abusuak sistematikoak dira, tartean sexu-esklabotza eta sexu-mutilazioak.

TIGRAY, TXIKI BOTERETSUA

Etiopiako biztanleriaren %6 baino ez bada ere, Tigray Etiopiako politikaren eragile nagusia izan da. TFLPk gidatutako koalizio batek lagundu zuen Haile Mengisturen joera sobietarreko gobernu zentralistari amaiera ematen 1991n.

Botere aldaketa horrek Eritrearen independentzia ere ekarri zuen, ordura arte Etiopia barruan zegoena. Izan ere, konstituzioan autodeterminazioa eta sezesio eskubidea dituen munduko herrialde bakanetakoa da Etiopia.

Behin tigrinyek boterea eskuratuta, herrialdeko etnia nagusiak ordezkatzen zituen koalizio alderdia eta gobernua sortu zuten, eta Etiopia etnia horien arabera banatu zuten. Horrela, TFLPk, Meles Zenawi buru zuela, ia hogei urtez (2012 arte) gobernatu zuen, gogor eta gordin.

TFLPren agindupeko urte horietan, Etiopia Mendebaldearen aliatu bihurtu zen 'terrorismoaren aurkako gerran', aurrerapen ekonomiko esanguratsua izan zuen, azpiegituretan inbertsio handia egin zuten eta dozenaka mila lagunek izan zuten lehen aldiz unibertsitatera sartzeko aukera. Baina disidentzia politikoa erabat azpiratu zuten garaia ere izan zen. Kazetariak, oposizioko buruzagiak, manifestariak eta blogariak atxilotu eta jazarri zituzten gupida handirik gabe.

Etiopia erregimen kapitalista da, baina Europaren begiradapean, neurri sozialista edota nazionalistak ditu indarrean oraindik. Lurrak ez du jabetza pribaturik, estatuak kudeatu eta ematen du alokairuan. Afrikako Txina Berria deitzen diote Etiopiari, Txinako fabrika asko ezarri direlako estatuak eskainitako alokairu prezio txikiei esker. Estatuarenak dira telekomunikazio eta energia enpresa nagusiak, baita airelineak eta unibertsitate publikoak ere.

Autoritate handiko figura handia zen TFLPko Meles Zenawi presidentea, eta 2012an, haren heriotzaren ondoren, herrialdetik erabat inoiz desagertu ez ziren tentsioak indar handiagoz berragertu ziren. Eta hala, 2018an, bi etnia nagusien (oromoak eta amharak) arteko protesta odoltsuen ondoren, urak baretzeko ezin hobea zirudien figura aurkitu zuen TPLFren gobernuak. Aurreneko aldiz, oromo bat izendatu zuten lehen ministro: Abiy Ahmed.

BURKIDE IZATETIK, 'HIENA TERRORISTAK' IZATERA

Abiy Ahmedek, nerabe zela, TPLFrekin batera egin zuen borroka, Mengistuko erregimen sobietarraren aurkako gerran, eta, horrela, tigrinyak boterea eskuratzen lagundu zituen. Behin TPLF gobernuan zela, inteligentzia zerbitzuetan ardura izan zuen, besteak beste. Bere historialari erreparatuta, nahiz eta beste etnia batekoa izan, Ahmed lehen ministro jartzeak ez zirudien arazo handirik ekarriko zionik TPLF-i. Baina Ahmedek, denen harridurarako, ia dena hankaz gora jarri zuen.

Boterera iritsi eta aurreneko hilabeteetan, mundua harritu egin zuen. Milaka preso politiko askatu zituen; hedabide independenteei ezarritako murrizketak indargabetu zituen; erbestean zeuden oposiziogileen itzulera ahalbidetu zuen; lehen aldiz Etiopiako historian emakumek eta gizonek osatutako gobernu parekidea sortu zuen; ustelkeriagatik ikertutako agintari eta militarrak kargutik kendu zituen eta, batez ere, bakea sinatu zuen "etsaiarekin": Eritrearekin. "Denborarekin ikusi dut agintari doilorra eta zitala dela, baina, nire kontra esan behar dut, boterera iritsi zenean Abiy Ahmeden jarraitzailea izan nintzela. Egin zuena harrigarria iruditu zitzaidan. Adibidez, alderdi politiko eta talde armatu guztiak legeztatu zituen. Hori ikusgarria izan zen. Adibidez, Eritrean erbesteratutako gerrillari oromoak Adis Abbebara –Etiopiako hiriburua– itzuli ziren, The Rolling Stones hirian sartu izan balira bezala". Artziniegako Mikel Bilbaoren hitzak dira. Sei hilabetez bizi izan zen Mekelen, Tigrayko hiriburuan, duela hiru urte. Ingeniaria da eta hango unibertsitatean irakasten aritu zen. Ordutik Etiopia eta Tigrayko egoera gertutik jarraitzen du.

Etiopiako lehen ministro Abiy Ahmed, Oslon, 2019ko Bake Nobel Saria jaso ostean.

REUTERS



Etiopiako banaketa administratibo eta politikoa, hamar etnia nagusien arabera.

Mekeleko herritarrak TPLFko kide baten atzetik, ekainaren 29an, Tigrayko hiriburutik Etiopia eta Eritreako indarrak kanporatu ostean.

BAKEA GERRARAKO PIZGARRI

Etiopia eta Eritrearen arteko bakea sinatzea, norekin eta Isaias Afewerki Eritreako presidentearekin –Tigrayren etsai sutsua– egungo egoeraren detonatzailea izan zen. TPLF boterean zela gerra egin zuten Eritrearekin kontra, 1998 eta 2000 artean.

"Tigray beti izan da eremu militarizatua, batez ere Eritreako mugan, eta Ahmed zonalde hori desmilitarizatzen hasi zenean, tigrinyek ulertu zuten mugimendu hori haiek babesik gabe uzteko egin zutela. Manifestazioak eskualde osoan zehar zabaldu ziren, Tigray gerrarako prest zen", dio Bilbaok.

Bake itun horrek atzerrian sari bat eta etxean gerra bat ekarri zizkion Ahmedi. Nobel saria jasotzean esan zuenean "Gerrak gizon mingotsak, gupidagabeak eta basatiak sortzen ditu", inork ez zekien horiek bere politika eta jokaeraren ezaugarriak izango zirenik.

GUDA ATE JOKA

Abiy Ahmedek gobernua gidatzen zuen koalizio alderdia desegin eta ia etnia berak ordezkatzen dituen beste alderdi bat sortu zuen, baina TPLF baztertuta. Handik gutxira talde terroristen zerrendan sartu zuen TPLF. Eta horrela, 2020ko azaroan, burkide eta alderdikide ohiei gerra deklaratu zien formalki, eta, hedaduraz, herri oso bati: Tigrayri.

Azaroaren 4ko gauean, Abiy Ahmedek Tigrayren aurkako erasoaldia agindu zuen, Etiopiako armadaren komandantzia batzuen aurka TPLFk, ustez, egindako erasoak haizatu zituen gerraren hasiera justifikatzeko. Hilabetera, Tigray menpean hartu zuela aldarrikatu zuen Etiopiako Gobernuak. Ahmedek orduan esan zuen ez zela biktima zibilik izan eta kanpaina militarrean ez zuela atzerriko indarrik parte hartu. Baina baieztapen borobil horiek laster xahutu ziren.

Tigray militarki menpean hartzeko, Etiopiako Gobernuak lau aktore nagusi mobilizatu zituen: Etiopiako armada, Amharako Polizia Indar Bereziak, Amharako Fano milizia eta Eritreako armada. Honezkero inork gutxik jartzen du ezbaian eritrearren esku-hartze armatua Tigrayn, "barne gatazka" ei zena nazioarteko gerra bihurtuz.

ITZALI ETA TXIKITU

Lehenik eta behin, Tigray argirik eta komunikaziorik gabe utzi zuten, eta, ondoren, "gizateriaren aurkako krimenei" ekin zieten, nazioarteko erakunde esanguratsu guztiek dokumentatu dutenez, Amnistia Internazional, Human Right Watch edo Nazio Batuen Erakundeak kasu.

Sarraskiekin batera, emakumeen bortxaketa sistematikoa izan da. Etiopiako eta Eritreako tropek ehunka emakume eta neska bortxatu dituzte, Amnistia Internazionalak (AI) abuztuan adierazi duenez. “Argi dago bortxaketa eta sexu indarkeria gerra arma gisa erabili dituztela Tigrayko emakume eta neskei kalte fisiko eta psikologiko iraunkorrak eragiteko", adierazi du AI-ko idazkari nagusi Agnes Callamardek. AI-ren txostenaren arabera, Tigrayko osasun zerbitzuek 1.288 sexu-indarkeria kasu erregistratu dituzte otsailetik apirilera bitartean, baina jakinarazi gabeko kasuen kopurua askoz handiagoa da.

"Arazo etniko bihurtu da. Tigrinyen aurkako gorrotoak mugiarazten ditu soldadu etiopiarrak eta eritrearrak. Horrela bakarrik uler daitezke egin dituzten ankerkeriak. Ni Tigrayko hiriburuan bizi izan naiz, 400.000 pertsona inguru bizi ziren Mekelen. Garapen apaleko hiria zen, baina bazuen zenbait aurrerapen. Adibidez, ospitale publiko handi eta aurreratua. Bada, gaur erabat suntsituta dago. Ez da ezertxo ere geratzen. Eritreako gizon armatuak igaro diren lekuetatik, orokorra izan da arpilatzea. Lapurtu daitekeen guztia eraman dute, eta beste guztiari su eman", dio Bilbaok.

USTEAK ERDI USTEL

Ahmeden asmoa, gerra azkarra egitea zen: erasoaldi basati batez, Tigray osoa okupatzea eta TPLF denbora gutxian suntsitzea. Baina erresistentzia gutxietsi egin zuen.

"Tigrayn ez da inor gatazka hau bere herriaren aldeko borroka gisa ulertzen ez duenik. TPLFko jendea militarki oso prestatuta dago, oso koadro zailduak dituzte. Erasoaldian, gerrillari tigrinyak basoetan babestu ziren eta, sei hilabeteren ostean, kontra-ofentsibari ekin zioten", azaldu digu Mikel Bilbaok. Astebetean, hiriburua berreskuratu zuten tigrinyek, indar okupatzaileen artean baja andana eragin eta arma eta gerra-

Y.CHIBA/AFP/GETTY IMAGES

Janaria jasotzeko ilaran, Tigrayko Shire herrian.

B. RATNER / REUTERS

rako material ugari konfiskatuz. "TPLFk Mekelen atxilotu zituen Etiopiako armadako milaka soldaduren irudiak ikus daitezke sarean", berretsi du Bilbaok. Zenbait egunetan, ia Tigray osoa berreskuratu zuten, eta Eritreako indarrek erretiratu egin behar izan zuten.

Alde militarretik nolabaiteko berdinketa teknikoa badago ere, herritarrentzat okerrena etortzeko dagoela diote nazioarteko eragile guztiek. "Euriteen sasoia iritsiko da laster eta ez dute ereiteko ezer izango, ezta landatzeko tresnarik ere, arpilatzea eta suntsipena erabatekoa izan da eta. Eta, gainera, ez dute nora ihes egin. Tigray erabat setiatuta dago", salatu du Bilbaok.

GOSEA ARMA

Bilbaok azpimarratu duenez, Tigray oso eremu txiroa da. Lehendik ere bizirik irauteko "egunero laguntza humanitarioz betetako ehun kamioi baino gehiago" behar izaten zituen Tigrayk. Malnutrizioa eta nazioarteko laguntzaren gurpil gaiztotik inoiz irtetea lortu ez duen Afrikako herrialde bat gehiago da. OXFAMen arabera, biztanleen erdia pobreziaren azpitik bizi da Etiopian, eta datu horiek are gordinagoak dira Tigrayn. Hala ere, Etiopiako Gobernuak gosea arma nagusitzat erabiltzen jarraitzen du gerra honetan, nahiz eta behin eta berriz adierazi duen ez dutela inoiz urratu Tigrayra laguntza humanitarioa sartzeko bide segurua bermatzeko konpromisoa.

Martin Griffiths NBEko larrialdietarako laguntzarako koordinatzailearen arabera, gatazka berehala gelditu egin behar da. Tigrayko 5,2 milioi bat pertsonak, eskualdeko biztanleen %90 baino gehiagok, laguntza behar dute bizirauteko. Horietatik, 400.000 inguru muturreko gosete-egoeran dira jada. Eta, jakina, lehen kaltetuak txikienak dira: goseteetan hiltzen diren pertsonen bi heren haur txikiak dira.

Lubakiaren beste aldetik, Amharako herri bateko mediku eta herritar batzuek salatu dute 120 zibil hil dituztela TPLFko gerrillariek iraila hasieran. Eraso hori oraindik ez du erakunde independenterik berretsi eta TPLF-k haren parte-hartzea ukatu du. Getachew Reda eledunak ondorengoa adierazi du: “Guk, irmoki, uko egiten dugu gure indarrek zibilen hilketan parte hartu izana eta, gainera, gertatu diren izugarrikeria guztiei buruzko ikerketa independentea eskatzen dugu”.

ETA ORAIN ZER?

"Abiy Ahmedek gerrarako gai den etiopiar orori eskatu dio armadan sartzeko 'behin betiko erasoaldian’ parte har dezaten. Amhara eskualdeko presidenteak buruzagi erlijioso guztiak bildu eta Tigrayren aurkako 'gerra erlijiosora' batzeko eskatu die. Tigraytik kanpo bizi diren tigrinyen hilketak ugaltzen ari dira, Addis Abeba hiriburuan bertan adibidez. Hedabide eta erakunde ofizialek Tigray eta TPLF terroristak direla diote. Ez dute eragile legitimotzat hartzen, eta horrek edozein bake akordiorako atea eragozten du", salatu du Mikel Bilbaok.

Tigrayri ezarritako blokeo mediatiko eta armatuak bere horretan darrai. Desplazatu eta hildakoen kopurua gora ari da egiten. TPLF borrokan ari da zenbait frontetan, eta Etiopiako Gobernua erasoaldi militar zabalagoa prestatzen ari da. Nazioarteko komunitateak (AEB, Txina, Europar Batasuna edo Addis Abeban egoitza nagusia duen Afrikako Batasuna), gehienez, Etiopiaren egoeraren gaineko "kezka" azaldu du, hatzik mugitu barik. Beraz, inork edo zerbaitek geldiarazi ezean, sarraskia sarraskiaren gainetik gertatzeko baldintza guztiak jarrita daude.

Barack Obama Bakearen Nobel sariduna drone bidez pertsona gehien hiltzeko agindua eman duen presidentea da historian. Bada, Abiy Ahmedek ere historia anker horren parte izan nahi du, titulu bitxia paparrean jarrita: bakearen nobeldun gerra kriminala. ●

MARCOS
okindegia
Benetako
antzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

“Formazio politikoa berriro ‘modan’ dago, baina bakoitzak berea”

Unai Vázquez eta Gorka Zozaia

Oinharri Eskolako kideak

Oinharri Eskolak uztailaren hondarrean zortzi eguneko barnetegia antolatu zuen herri mugimenduetako hainbat lagunentzat Gasteizko Errekaleor auzo askean. Ohiko formakuntza ereduari koska bat estutu eta parte-hartzaileak astindurik ageri dira. Unai Vázquez eta Gorka Zozaiarekin mintzatu gara.

RUBEN SÁNCHEZ BAKAIKOA

Eskolaren abiapuntuarekin hasiko gara. Brasilgo MST Lurrik Gabeko Mugimenduaren Florestan Fernandes eskolak badu zer ikusia, ezta?

Unai Vázquez: Eskola hori erreferente bat da, bai, baina ez bakarra. Egia da Oinharri Eskolaren proiektuarekin hasitako batzuk handik pasa garela, eta metodoarekin maitemindu, eta beraz eragin handia izan duela. Aurretik ere, formakuntzarekin harreman estua izan dugu gehienok: herri mugimenduetan, munduko beste eskola batzuetan edo Euskal Herriko Herri Unibertsitatean, kasu.

Dena den, Florestaneko esperientzia izugarria izan zen. Nik Latinoamerikako herri mugimenduei zuzendutako nazioarteko ikastaroan parte hartu nuen bi hilabetez eta sentsazio asko, irakaspen eta kontraesan pila bat sortu zitzaizkidan. Txikitan udalekuetara joateak eragiten duen sentsazio eta poz berdintsua sorrarazten dizu.

Zenbat lagun ari zarete proiektuan?

U. Vázquez: 20ren bat, noski inplikazio maila ezberdinetan, batzuk buru-belarri, Oinharrin militatzea lehentasunez hartuta eta beste batzuk beste militantzia batzuekin uztartuta. Liberatuak izateko gaitasunik gabe, baina ilusio handiz ari gara; zerbait ezberdina, beharrezkoa eta osagarria eraikitzearen sentsazioarekin.

Eskolaren hainbat aurkezpen egin duzue, nola joan dira?

U. Vázquez: Orokorrean, proiektua interesgarria dela uste da, baina nik uste dut gabezia bat sumatzen dela: bakoitzak bere zilborrari begiratzen dio eta diogu. Normala da, ezagutzen dugunetik analizatzen dugu dena, kanpotik datozen proposamenak ere bai. Gure helburua bikoitza da, alde batetik, formakuntza politiko minimoa ematea, herri mugimendu guztientzat bera; eta bestetik, elkarbizitzaz herri mugimenduen arteko elkar ezagutza sustatzea, gure leloak esaten duen bezala “ezagutuz aldatzea”. Eragileei, proiektua interesgarritzat jotzen badute ere, kostatzen zaie ikustea zertan garen ezberdinak beraiengandik edo beste erakundeetako formakuntza tresnetatik, ikastaroan parte hartu arte. Orduan, metodoan trebatzean, esperimentatzean, proiektua bera ulerrarazten da eta ikuspegia aldatzen da.

Bi barnetegi egin dituzue. Zer balorazio egiten duzue?

U. Vázquez: Lehen barnetegia, kanpoko jendea gonbidatu bagenuen ere, barnera begira izan zen bereziki, guk geuk metodoa ezagutzeko eta trebatzeko, hainbeste teorizatu genuena eztabaidatu eta praktikan ipintzeko. Florestan eskolatik pasa ez zirenek beren gorputzetan senti zezaten ere nahi genuen. Ikaragarria izan zen bigarren egunerako zer konexio genuen, kohesioa ezberdintasunean;

RUBEN SÁNCHEZ BAKAIKOA

adostutako koordinazio eta diziplina militantearekin kolektiboan zer gauza zoragarriak lortu ahal diren. Ikastaroen helburua ez da "eskolak" jasotzea, baizik eta elkar ezagutza kolektiboa, eta horretarako lau ikasketa eremu ditugu: komunitateko lanak, teoria-praktika politikoa, kultur sorkuntza eta antolakuntza. Batak ez du besteak baino garrantzi handiagoa, denak dira ezinbesteko, batak ez badu funtzionatzen errotarriak ez du biratzen, talka egiten du. Talka horren bidez ikasten-irakasten dugu, kontraesanak sorraraziz. Hori tresna nagusi izanda, intentsitate handia izateak laguntzen du kontraesanak areagotzen.

Bigarren barnetegian kanpora zabaldu zarete.

U. Vázquez: Bai, eta horrek ekarri du hainbat talka: militantzia ereduak ("zaharrak/gazteak"), maskulinitateak, barneratuta dugun denbora "librearen" kontzepzio burgesa... Hamaika kontraesan sortu dira, eta identifikatuz eta kudeatuz, ikasten joan gara. Noski, guri ere sortu zaizkigu kontraesanak, eta haietatik ikasten dugu.

Ikastaroa esperientzia bat da, egoera emozional guztietatik pasatzen da, intentzionalitate bat dago horretan guztian. Bukaerako sentsazioak, orain arte behintzat, oso onak izan dira, pena ematen du kideak agurtzeak, kolektiboan bizitzeari uzteak.

> "Gorputza eta komunitatea, kultura eta antolaketa eduki klasikoekin nahasi eta espazio berri bat eskaintzera dator Oinharri Eskola"
>
> **Gorka Zozaia**

Gorka Zozaia: Unaik aipatu duen azken hori oso agerikoa da, barnetegiak komunitatea sortzen du. Norbanako gisa jardutera ohituta gauden munduan, bat-batean apurtu egiten da. Batzuk berehala, besteak hirugarren egunerako, baina norbanako isolatu burujabe-autosufiziente eraikuntza sendoak apurtzen dira, trinkotasunak dakarren intentsitateak bultzatuta hein handi batean. Komunitatean zertzen gara, elkarren premia dugu gure behar material eta emozionalak asetzeko eta behar hori barnetegian agertzen da.

Esperientzia bietan hori oso agerikoa izan da, eta hain zuzen, indibidualtasunaren apurketa gakoa da normalean "formazio" gisa etiketatzen den eduki jakinen ikasketa sakona eta esanguratsua emateko. Izan ere, ez da ohikoa ikasteko –gure burua aldatzeko– prest egotea. Adibidez, gai baten inguruko hitzaldi batean parte hartzen dugunean, maiz aldez aurretik badakigu zer jarrera izango dugun, zein kritika eta ekarpen egingo dugun amaierako hitz-hartzeen atalean. Barnetegiak egoak apurtu, aurrez ezagunak ditugun eduki horiei beste nonbaitetik begiratu eta elkarrengandik ikasteko aukera zabaltzen du. Hori dela eta, ez dugu bereizten "formakuntza" eta "elkarbizitza": barnetegiko une guztiek dute izaera pedagogikoa, aurrez pentsatuak dira eta intentzionalitate bat dute.

OINHARRI ESKOLAK UTZIA

Nola baloratzen duzue formakuntza politikoaren gaineko egoera Euskal Herrian?

G. Zozaia: Aberatsa da formazio politikoaren mapa. Badaude 40 urtetik gorako egitasmoak eta jaio berriak direnak, edo egitasmo lokalak eta nazio mailakoak. Badira formazioa arrazoian eta eduki klasikoetan oinarritzen dutenak, baita gorputza formazioan integratzen dutenak ere, edo dinamika parte-hartzaileetan edukietan baino arreta handiagoa jartzen dutenak. Eta jakina, badira formazio politiko sakonagoak eta azalekoagoak. Aniztasuna da nagusi, baina oro har, eragile politiko, sozial eta sindikalek beren jarduera politikoa elikatzeko sortzen dituzten egitasmoak dira, eragile anitzetako militanteentzat zabaltzen diren esperientziak barik.

Oinharri Eskolak esperientziok aintzat hartzen ditu, berauetatik edaten du eta ez du ordezkatzeko asmorik. Alta, Hegoalde Globaletik heldu diren formazio esperientziekin elikatu nahi du Euskal Herriko formazio politikoaren mapa. Hala, gorputza eta komunitatea, kultura eta antolaketa, eduki klasikoekin nahasi eta espazio berri bat eskaintzera dator Oinharri Eskola, hainbat eragiletatik eta militantzia eredu anitzetatik heldu diren parte-hartzaileak elkartuz, elkarbizitzan sortzen diren kontraesan eta elkarrekintzetatik ikasteko.

Gainera, gure ustez, ikasketa prozesuak aldaketa ekarri behar du. Ez da prozesu azalekoa eta erraza, esfortzua eskatzen du, eta garaiotan esfortzua ez dago batere modan, edo militanteok ez dugu esfortzu gehigarrietarako ez astirik ez gogorik. Hori dela eta, bada joera bat formazio politikoa arintzeko eta ohiko kontsumo formatuetara egokitzeko, nolabait edozein unetan formatzea errazteko. Lanerako bidean, otorduetan... mugikorraren bidez kontsumitu daitezkeen pilulak, funtsean. Halako formatuak ez dira pertsonetan aldaketa esanguratsuak eragiteko gai.

> “Sentsazioa dut ‘Herri Fronte Judutarraren’ eta ‘Judeako Herri Frontearen’ garaian gaudela. Gure lana ez da Judeako Fronte Batua eraikitzea”
>
> **Unai Vázquez**

Zailtasunei tiraka segiz...

G. Zozaia: Lehen esan bezala, ez da erraza oporralditik egun batzuk ikasteko “sakrifikatzea” gaur egun dugun aisiaren ulermenetik. Badirudi ez badugu urrutira bidaiatzen ez dugula oporrik. Are zailagoa da lan prekarioetan arituta oporraldiak oso laburrak direnean. Honez gain, zailtasun inportante bat da azken hamarkadan areagotu den eragileen atomizazioa, baita elkarrekiko ditugun mesfidantzak ere; zaila da norberaren eragiletik (parrokiatik) kanpo ikasteari ateak zabaltzea. Baina zailtasun horiek berak aukera gisa irudikatzen ditugu, adostasunak eraikitzeko. Izan ere, elkar topatzeko espazioak urriak dira eta bada gogorik. Bestelako formazio politikoak ezagutzeko jakin-mina ere badago, baita oporraldia beste era batera gozatzekoa ere, adibidez turismoaz dugun diskurtsoarekin koherenteago.

U. Vázquez: Aspaldi formakuntza politikoari ez zaio dagokion garrantzirik eman. Formakuntzak zentrala, etengabea eta iraunkorra izan behar du edozein ezkerreko herri mugimendutan. Dialektikaren legeek ohartarazten digute dena etengabeko aldaketan dagoela, formakuntza iraunkorrik gabe geldi geratzen gara, analisirako eta beraz aldaketarako gaitasuna galtzen dugu.

Orain, berriz, ematen du “modan” dagoela formakuntza politikoa berriro, baina bakoitzak berea eta beretzat egiten du. Badut sentsazioa 'Herri Fronte Judutarra' eta 'Judeako Herri Frontea'-ren garaian gaudela. Friki samarra naiz eta *The life of Brian* filma asko gustatzen zait. Ez gatoz hori aldatzera, gure lana ez da Judeako Fronte Batua eraikitzea, baina elkar ezagutzeak, bestearen borrokak, analisiak, bizipenak ezagutzeak, elkarbizitzak, beti laguntzen du norabidea aurkitzen. ●

‘Elebitasuna’ etiketari atseden hartzen utzi behar diogu, kalte egiten baitigu

Xavier Vila

Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikako idazkaria

Francesc Xavier Vila (Esplugues de Llobregat, 1966) Hizkuntza Politikako idazkari berria da, zeina Kultura Sailaren menpe dagoen. Vilak Esther Franquesaren tokia hartuko du eta zuzendaritza orokorra zena idazkaritza izango da orain. Aldaketaren helburua da "hizkuntzari eman nahi zaion garrantzi berritua" erakustea eta transbertsalitatea erraztea, zeren "idazkariak beste sailekin jarduteko gaitasun handiagoa du".

OT BOU COSTA

“Van Parijsen ereduak dio: izan gaitezen denok eleaniztun, baina, aldi berean, eutsi diezaiogun hizkuntza bakoitzak bere lurraldean duen lehentasunari”.

MADDI SOROA / FOKU

VilaWeb

Elkarrizketa hau Vilaweb-ek argitaratu du katalanez eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Zer analisi kritiko egiten duzu aurreko agintaldiari buruz?
Kontua ez da aurreko agintaldiaz bakarrik hitz egitea. Perspektiba gehiago dago. Mendeetako hizkuntza politika linguiziden ondoren, nahiz eta 78ko erregimena ez den ideala, berreskuratze politikak egitea ahalbidetzen du. Gauza batzuetan Kataluniako gizartearen gehiengoa ados zegoen. Lehenik eta behin, herritar guztiek katalana jakitea nahi zen; pixkanaka, baina intentsitate handiz. Bigarrenik, katalana komunikazio eremu guztietarako hizkuntza izatea. Desadostasunak zeuden: batzuek nagusitasun gehiagorekin nahi zuten eta beste batzuek gutxiagorekin. Baina guztiek uste zuten denetan erabili behar zela. Eta hirugarrenik, ez genuen komunitateetan itxi nahi. Kanpotik etorritako populazioa komunitate nazional bakar batean integratu behar zen.

Eta zer gertatu da?
Gutxieneko akordioak ziren, nahi baduzu, baina zeharkakoak. 78an, edo 83an, denek sinatzen zuten. Hamarkada batzuk geroago, oraindik ere, hizkuntza ez dakien jende multzo handia daukagu, katalana ez da eremu guztietan erabiltzen eta segmentazio eta polarizazio sintomak daude. Biztanleriaren zati handi batek ez du katalana bere hizkuntzatzat hartu. Testuingurua aldatu egin da, ez dut esan nahi dena gaizki egin denik. Denbora gutxian 1.700.000 pertsona baino gehiago jaso genituen, eta ez genituen aurreikusi. Baina ez ditugu beharrezko politikak egin pertsona horiek hizkuntzaren ohiko erabileran murgil daitezen. Ez dugu lortu denek jakitea. Eta zenbait alderditan atzera egin dugu. Izan ere, batzuek uste dute katalana aintzat hartu gabe bizitzeko eskubidea dutela. Adostasunak eta helburuak berreraiki behar ditugu, asmo handikoak eta lorgarriak.

Zergatik ez dugu lortu diozun hori?
Azken hamarkadan, kolektiboki hizkuntzarekiko kezka bigarren mailan izan dugu. Lehentasuna beste bat izan da, baita sektore katalanista linguistikoei dagokienez ere. Sarri, aurrera begira zertaz hitz egin behar genuen eztabaidatzen aritu gara, baina horrek ez digu utzi mahai gainean jartzen oinarrizko erronkak ez ginela ari betetzen. Bada beste kontu bat eta ez da zuzendaritza nagusiarena bakarrik, katalanismo linguistikoarena eta hizkuntzaren defentsarekin lotutako mugimenduena ere bada. Diskurtso- eta azterketa-esparruak aldatu ditugu, zeinak orain arte hizkuntzaren normalizazioaren eta berreskurapenaren beharretatik urrun ibili diren beti. Eta askotan, onurarik ez zekarten eztabaidetara eramaten utzi dugu gure burua.

Adostasuna haustearen osagai politikoarekin zerikusia du?
Tira, adostasunak hautsi direla esan aurretik, esango nuke ez direla bete oinarrizko adostasunei buruzko helburuak. Uste dut adostasun horiek, funtsean, nagusi izaten jarraitzen dutela, baina ez gara gogoratu ere egiten. Onartu dugu ehunka mila pertsona egon daitezkeela Katalunian herrialdeko hizkuntza ulertzen ez dutenak. Onartu dugu ez dela ezer gertatzen enpresa bateko langile guztiek katalana ulertzen ez badute. Diskurtsoak berriz planteatzen baditugu, adostasunak berriro azaleratu eta oso positiboki aurrera egin ahal izango dugu.

> “Hamarkada batzuk geroago, oraindik ere, hizkuntza ez dakien jende multzo handia daukagu”

Esan nahi dut ziklo politiko batetik gatozela, non orain arte ikusi ez diren gauzak ikusi diren hizkuntzarekin. Talde ugari legebiltzarrean gaztelania erabiltzen.
Oso kontraesan dibertigarria da. Jendeak harro hitz egiten du elebitasunaz eta gero dio gaztelaniaz aritzen dela katalana berezko hizkuntzatzat hartzen ez duen jendearentzat. Begira, hiztun kopuruari dagokionez katalana erdi mailako hizkuntza da. Katalanak eleaniztunak izango gara hemendik aurrera: hizkuntza bat baino gehiago jakin beharko dugu. Funtzio esklusiboak bermatu behar dizkiogu katalanari bere lurraldean. Legebiltzarrean katalana lehentasunez erabiltzeak katalana guztiona zela ikusarazten zuen. Agian zaharra naiz, baina gogoan dut "katalana guztion kontua da" zioen eslogana, luzaroan funtzionatu zuen adostasun bat. Ez da erabat galdu, baina ahulduta dago. Berreskuratu beharko genuke.

Murgiltze linguistikoa bete al da?
Herrialde Katalanetako gainerako lurraldeekin alderatuz gero, Katalunian lortzen ditugun emaitzak hobeak dira. Egoerarik onenean gaudela esan nahi du? Ez, urrun gaude. Biztanleriaren zati batek hizkuntzaren ezagutza ahula lortzen du, eta hizkuntza erabiltzaile baino gehiago hartzaile da. Dinamika zital batean sartu gara. Askotan esaten da badakitela, baina ez dute erabiltzen. Hizkuntzaren erabilera ez da erabakitzen freskagarri bat aukeratzen arituko bazina bezala. Ez, askotan gertatzen dena da eskolak katalanezko ezagutzak ematen dituela, baina ez du kolokializatzen nahikoa. Ezin ditu erregistro guztiak eman. Eta hau lan gehigarria da eskola katalanarentzat. Eskola alemaniar bati ez zaio eskatzen. Baina gure eskolak eskola arrunt batek baino tresna linguistiko gehiago eman behar ditu. Ez gara hori egiten ari. Azken hamarkadetan, alderdi askotan, erne egoteari utzi zaio.

Auzitegi Gorenaren azken epaiak eta Celaáren legeak kalte handia egiten diote katalanari. Edozein eskolak egin ditzake enborreko ikasgaiak gaztelaniaz, eta etorkizuneko gobernu espainiar batek portzentajea inposatu dezake modu orokorrean.
Oraintxe bertan Auzitegi Gorena epaia aztertzen ari da eta erantzuna ematen duenean dagozkion erreakzioak izango ditu. Ni –ez naiz legelari– eta legelari asko harritu gaitu epaitegiek bereak ez diren eskumenak hartzeak. Auzitegiak botere betearazleari edo legegileari esan diezaieke eskubide horiek errespetatu behar dituztela, baina ezin du esan zehazki nola egin behar duten. Harritzekoa da auzitegiak %25 dela erabakitzea. %25 zergatik? Eta nola kontatzen da? Epaileak egon behar ez zuten eremuan sartu dira. Baina Espainiar Estatuko epailetza den bezalakoa da.

Egoera horrek nola eragin dezake katalanaren erabileran gazteen artean? Izan ere, erabilera gehien jaisten den adin tarteetakoa da.
Ez dago hain argi gehien jaisten den tarteetako bat izatea. Hiztunen jatorrizko hizkuntza kontuan hartuta hitz egiten badugu, ez da egia. Jatorrizko hizkuntza katalana duten gazte gehiago daude, heldu gazteak baino. Immigrazio handiagoa dagoelako heldu gazteen artean –lanera etortzen direnak– gazteen artean baino. Baina gazteak jende gehiagorekin

nahasten dira. Beren artean harreman askoz gehiago dituzte, helduenak alderatuz gero. Eta pertsonen arteko harremanetan, ez dago argi egungo gazteen portaerak aurreko belaunaldietakoen oso desberdinak direnik. Alabaina, katalanaren eta gaztelaniaren erabilerak gaztelaniarekiko mendetasunean bat egiten dutenez, harreman gehiago badituzu aukera gehiago dituzu katalanez hitz egiten ez duen jendearekin egoteko, eta beraz, gaztelaniaz hitz egiteko. Baina kontuz gazteak errudun jotzearekin. Espejismo bat dago.

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Zer?

60 urtetik gorako jendeak alderatu ohi ditu gaur egungo gazteak –%36k du katalana jatorrizko hizkuntza gisa– eta bere garaiko gazteak –%50ak baino gehiagok–. Tranpa da. Ezin da zuzenean alderatu demografikoki ahulagoa den biztanleria duela 40 urtekoarekin. Analisiak fin-fin egin behar ditugu. Gazteak katalana uzten ari diren topiko hori ez errepikatzea gustatuko litzaidake. Ez dugulako daturik esateko gazteak katalana uzten ari direla. Gazteen artean askoz hiztun berri gehiago egotea gustatuko litzaidake. Hor egin beharko genuke bat.

Kataluniako gizartean gaur egun funtzionatzen duen elebitasunak ordezkapen prozesura kondenatzen al du katalana?

Aracilek [Lluís Vicent Aracil i Bonet, soziolinguista valentziarra] honela zioen 60ko hamarkadan: "Elebitasuna mito gisa erabiltzen da ordezkapena ezkutatzeko, batzuk baino ez garelako elebidunak, eta besteak ez". Gogora ekartzen dut, zeren askotan errealitatea ikusten uzten ez diguten eztabaida kontzeptualetan galtzen gara. Elebitasunak, adjektiborik ez badu, hainbeste esanahi ditu, ezen ez duen ezer esan nahi. Katalunia gizarte elebiduna dela esan dezakegu. Baina gogoan dut Madrilek "Madril, komunitate elebiduna" izeneko kongresua egin zuela, eta bertan harro esaten zutela gauza asko egiten zituztela ingelesez. Elebitasun gehiagori eta elebitasun gutxiagori buruzko eztabaida nominalistetan galtzen gara eta etiketa oparitzen diogu elebitasuna 'seskilinguismo' gisa interpreta dezakeen jendeari: zuek elebidun izateko betebeharra duzue, nik elebakarra izan nahi dut eta beti nire aldera eman behar duzue amore. Iruzurra da. Hori elebitasuntzat hartzea onartzen baduzu, diruzorroa lapurtu dizute.

Eta orduan?

Elebitasuna eta eleaniztasuna tresna ezegonkorrak dira, maneiatzeko oso zailak. Inork ez du zalantzan jartzen. Lortu behar duguna da katalanek, zeinaren gehiengoak eleaniztuna izan nahi duen, eleaniztasuna katalana desaktibatzeko arma ez bihurtzea. Niri eleaniztasun autozentratua etiketa gustatzen zait. Edo,

> “Batzuk uste dute katalana aintzat hartu gabe bizitzeko eskubidea dutela”

nahi baduzu, hizkuntza-subsidiariotasunaren printzipioa: tokiko hizkuntzan egiten duzuna ez egin *lingua franca*-n. Oro har, elebitasunak hizkuntzak zigortzen ditu? Ez. Izan ere, begira zein paradoxa, elebitasuna dagoen bitartean bi hizkuntzak erabiltzen dira. Baina elebitasun terminoak kalte egiten digu, konnotazioa duelako eta diskurtso sinplistetara garamatzalako. Utz diezaiogun lasai atseden hartzen eta eleaniztasun autozentratu bateranzko bidea egin dezagun, zeinak berma dezala herrialdeko berezko hizkuntzen iraunkortasuna eta guztion hizkuntzen ezagutza.

Zer iritzi duzu José Murgades irakasleak '*panxacontentisme lingüístic*' deitu duen kontzeptu horretaz?

Dena perspektiba kontua da. Munduko hizkuntza gehienetako hiztun gehienak gutxi arduratzen dira beren hizkuntzaz. Hizkuntza ordezkapen prozesu zorrotzean dauden komunitateek ere ez dute beren hizkuntzetan pentsatzen. Zorionez, hemen jende asko dago kezkatuta katalanaren egoeraz. Segur aski, hizkuntza mehatxatuak dituzten beste gizarte batzuetan baino 'bertan gozo' gutxiago ditugu hemen. Hitz ez oso enpatikoa da, etxekoa. Ez dut uste ibilbide zientifiko edo politikorik izango duenik.

Bestela esango dizut. Nola konpondu dikotomia katalanaren egoera txarraz ohartaraztearen eta katalana marmartien kausa ez bihurtzearen artean?

Asko gustatu zait planteamendua. Horixe da, hain zuzen ere, lortu behar dena. Orain mundua linguistikoki antolatu behar da. Eta modu askotara egin dezake. Bada esan dezakeenik: ni nonahi, nire hizkuntzarekin, edozein tokitan zerbitzatu behar naute nire jatorrizko herrian egongo banintz bezala. Uste dut hori ez dela bizikidetza demokratiko eta berdintasunezkoa lortzeko bidea. Gatazkatsua da, nahitaez. Niri Van Parijs irakasleak proposatzen duen eredua gustatzen zait.

Zer dio?

Hizkuntza guztiek behar dutela hizkuntza nagusia izango den lurraldea, non funtzio batzuk bermatuak dituzten, non harrera hizkuntzak diren, non, talde horretako kide izan nahi baduzu, merezi baitu ikastea. Hau ez dago eleaniztasunarekin kontrajarria. Baina, ados al geundeke ingelesez Parisen eta Londresen berdin-berdin bizi ahal izatearekin? Nik uste dut ez dela bidezkoa. Frantses gizarte osoa jartzen duzulako anglofonoen pribilegio elebakarraren zerbitzura. Arazo globala da, eta ikusiko dugu nola konpontzen dugun. Van Parijsen ereduak dio: izan gaitezen denok eleaniztun, baina, aldi berean, eutsi diezaiogun hizkuntza bakoitzak bere lurraldean duen lehentasunari. Horrek beste hizkuntzak baztertzen ditu? Ez. Horrek esan nahi du hona bizitzera datorren norbaitek ezin duela mugarik gabe alde batera utzi herrialdearen berezko hizkuntza. ●

Irurita gotzainaren heriotzaren misterioa

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Montcada i Reixac (Bartzelona), 1936ko abenduaren 3a. Manuel Irurita Almandotz apaiz nafarra, Lleidako eta Bartzelonako gotzain izana, hilerrian fusilatu zuten anarkistek, agintari frankistek zabaldu zuten bertsio ofizialaren arabera. 1950ean Iruritaren beatifikazio prozesua abiatu zen, 1980ko hamarkadan bultzada handia izan zuena, eta azkenik, 2002an dokumentazioa Vatikanora bideratu zuten. Baina orduan, mende aldaketarekin bat, Larraintzarreko apaizaren heriotzaren bertsio ofiziala zalantzan jartzen zuten ahotsak ugaltzen hasi ziren.

1936ko uztailean, Espainiako Gerra Zibila piztu zenean, herritarrek egoitza episkopala eraso zuten, eta gotzain integrista, ultrakontserbadore eta antikatalanistak ihes egin zuen eta ezkutatu egin zen. Baina handik hilabete batzuetara miliziano errepublikarrek atxilotu eta Montcadan hil zuten, besteak beste, Marcos Goñi ilobarekin batera, kontakizun frankistaren arabera. Bartzelonako katedralean dauden gotzainaren ustezko arrastoei DNAren froga egingo zieten aurrerago eta Iruritarenak edo haren senitarteko batenak zirela baieztatu zuen emaitzak; baina ilobarenak ere izan zitezkeen eta arrastoen hortz-haginak aztertu zituztenean, ez zetozen bat gotzainaren historia medikuak zioenarekin.

Gainera, Pio XI.aren Vatikanoko artxiboak publikora zabaldu zirenean, hainbat dokumentuk ere bertsio ofiziala gezurtatzen zuten: informazio zerbitzu

frankisten arabera, Irurita bizirik zegoen 1937an, eta Vatikanoak uste zuen oraindik ere bizirik zela 1938an. Joan Bada historialariak Nazioarteko Gurutze Gorriko dokumentazioa aurkitu zuen, 1937ko udazkenean bizirik zegoela zioena. Eta hainbat lekukok Bartzelonan ikusi omen zuten 1939ko urtarrilean.

Baina 1936ko abenduan fusilatu ez bazuten, noiz eta nola hil zen Irurita gotzaina? Josep Maria Rafols historialariak misterioa argitu eta *La increible història del bisbe Irurita* (Base, 2021) liburuan azaldu du. "Topatu nuen dokumentu baten arabera, Bartzelonako polizia buruaren espioi batek, Luis Marti Olivares Rebalsoko markesak Parisen erbesteratutako anarkosindikaslisten artean infiltratzea lortu zuen 1939an. Federica Montseny, García Oliver eta CNTko beste buruzagi batzuekin harremanetan, jakin zuen Irurita 1939ko otsailean hil zutela CNTko kideek, La Seu d'Urgelletik Andorrarako bidean".

Orduan, oraindik bizirik zegoela jakin arren, frankistek zergatik zabaldu zuten bertsio okerra? Errepublikarrek hainbat saiakera egin zituzten gotzainaren truke hainbat preso errepublikar aska zitzaten, "baina ez zuten emaitzarik lortu. Hirutan Franco jeneralak berak geldiarazi zituen saiakerak, Irurita gorrien izugarrikerien martiria izatea komeni zitzaiolako". ●

Egiptoko objektuen bidaia luzea

Salamancako El Cerro de San Vicente aztarnategian, Burdin Aroko kastroan aurtengo udan egindako indusketa kanpainan, orain arte Iberiar penintsularen barnealdean aurkitu ez diren objektuak topatu dituzte, jatorria Mediterraneo ekialdean dutenak: zeramika beiraztatutako aleak, apaindutako kaiku zati egiptoar bat, Hathor jainkosa egiptoarraren amuleto eskematikoa... Carlos Macarro arkeologoaren esanetan, "ekialdeko tradizioaren kutsua duten pieza hauek feniziarrek ekarri zituzten". Ikerlarien ustez, lurralde hori aberatsa zen burdinetan eta kasiterita mineraletan, eta horrek garaiko merkataritza bide nagusiekin lotu zuen kastroa. ●



SALAMANCAKO UNIBERTSITATEA

ERREDAKZIOAREN BEGIRADA ASTEKARIKO SAILEI

Gaurkotasunaz ari gaitezke astekari batean ere

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Panorama hitzak eramaten dit burua egoera jakin batera, une batera, momenturen bateko aktualitatera. "A zer panorama" edo "zein da panorama?" bezalako esaldiek ez al dizute hori gogorarazten, irakurle? Gustuko dut patxadaz irakurtzeko astekarian aktualitatea sartzeko bilatu duten formula. 'Panorama'. Astekaria eraberritu zenean egin zen apustua gaurkotasuna papereko aldizkarira ekartzeko modu honetan eta erredakzio taldean baloratzio polita egin diote.

Irudi, zifra, aipu eta analisiez osatzen diren bospasei orrialdeei beste bi gehitzeko erabakia hartu da. Gaur egungo formularekin jarraituz, baina aldaketa batzuk egongo dira diseinuan, elementu berriak gehituko zaizkio sailari... eta sinadura berriak ere topatuko ditugu hemendik aurrera. Adur Larrea marrazkilariaren 'Ez hanka ez buru' eta Aritz Galarragaren 'Humanitatearen une gorenak' Panorama atalean leitzen segitzeko plazera izango dugu, orain bi aste agurtutako Juan Mari Arregiren lekuan Ainhoa Etxaideri emango zaio ongi etorria ekonomiak uki ditzakeen erpinetatik tiratzeko eta firma berriak ere izango dira Diana Franco teknologia arloaz aritzeko, Ula Iruretagoiena arkitektura eta espazioaren begietatik aktualitateari erreparatzeko eta Axier Lopez nazioartearen jarraipena egiteko. Batzuk astero arituko dira eta beste batzuk bi astean behin.

Gaur arte ezagutu dugun Panoramak nahiko diseinu finkoa izan du eta hori da aldatu nahi duten aspektuetako bat. "Malgutasuna emango diogu atalari", aipatu dute erredakzio taldetik. Aktualitateak eskaini duenaren arabera jokatuko du; estatistika, zenbaki edo portzentaje esanguratsu gehiago dagoela, bada horri eman garrantzia batean, aipu azpimarragarririk ez dagoela, bada ez sartu aipurik aste horretan, irudi deigarri bat baino gehiago dagoela, bada barrura.

Aktualitateak baditu milaka aurpegi, baina gure begiak dira bisaia horiek interpretatu behar dituztenak. Aurpegi berari nondik begiratzen diogun asko aldatzen baita. ARGIAk badu sareko irakurlearentzat egunerokoari begiratzeko espazioa argia.eus atarian. Gaurkotasuna gure begiradatik kontatzeko lekua ere egin dugu astekarian. ●

Diana Franco, Ula Iruretagoiena eta Ainhoa Etxaide, fitxaketa berriak Panoraman.

ARGIAN PRAKTIKAK EGIN NAHI DITUZU?

Lantaldean aritu, sare sozialak kudeatzen eta interneterako zein papererako idazten trebatzeko aukera zabalduko dugu. ARGIAn praktikak egin nahi baduituzu, irailaren 16an egingo dugun azterketara aurkeztea besterik ez duzu.

Irailaren 16an (osteguna) egingo dugu azterketa, goizeko 12:00etan, ondoko lekuan:

ARGIAren egoitzan, Lasarte-Orian, Zirkuitu Ibilbidea, industrialdeko 15. pabilioian.
EHUko Leioako campuseko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, 31. gelan.

Etorri behar baduzu, bidali e-mail bat praktikak@argia.eus helbidera eta adierazi bi lekuetako zeinetan nahiago zenukeen egin azterketa. Azterketara curriculuma ekarri, mesedez.

Praktikaldiak lau hilabeteko iraupena du eta hiru sasoi daude aukeran:

2021eko urriaren 1etik
2022ko urtarrilaren 31ra.

2022ko otsailaren 1etik
2022ko maiatzaren 31ra.

2022ko ekainaren 1etik
2022ko irailaren 30era.

Lau orduko lanaldia izango da.

Kazetaritzako, Ikus-entzunezko Komunikazioko eta Giza Zientziak eta Komunikazioko ikasleei zuzendutako deialdia da. Nahitaezkoa izango da praktikak egin bitartean unibertsitatean izena emanda egotea.

Animatu eta batu ARGIAren komunikazio proiektu independentera.

LIBIDOA EUSKARAZ AKUILATZEKO

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Sideritis scardica, viagra bulgariarra.

Hosto txiki iletsuak ditu beheko aldean, eta 20-40 cm artean burua luzatzen du. Viagra bulgariarra esaten zaio, *Sideritis scardica*. Landare urdinxka da, ileek kolore urdinkara ematen diote eta. Mendi garaietako toki harkaiztsuetan bizi da eta horrelakoetan ibilia denak badaki eguzkiak zer-nolako erredura larriak sor ditzakeen goi horietan. Ileak hostoa eta zurtoina babesten ditu: itzala ematen die eta gehiegizko transpirazioaren ur galera hilgarria arindu. Zezen-hilketen zale espainiarren esaera da "ilea dagoen tokian poz-atsegina dago", hil berriari moztutako belarria eskuan duen zezenketariaren bozkarioa adierazteko. Zezen plazatik plaza arruntetara egina du salto esaerak, eta sexu esanahi garbiarekin erabiltzen da. Zezenzale edo ez, viagra premia ere hedatua da.

Duela ez asko, lagun batek oparitu zidan landarea, eta pozez zoratzen nago; esker mila Fernando, Bedaioko Belanbro aldera. Ikaragarri dotorea da, eta, landare lagun berri bat ezagutzen dudanoro gertatzen zaidan gisan, bere nondik norakoak ezagutu arteko onik ez dut. Bulgarian hasten da istorioa, Rodope mendietan. Jatorri zabalagoa du, baina hortik dator gaurkoa. Metro erdia harrapatzen ez duen landare hori uda partean loratzen da, kolore horian eta eztiaren eta limoiaren arteko (edo bien) usainarekin. Mendi horietan bada bat Mursalitsa izena duena, landare xelebre hori aitzakia sonatua bihurtu dena.

Mursalitsako tea edo Mursalski tea esaten zaio *Sideritis* generoko landare honen urari. Bere osagaien artean, magnesioa, potasioa, selenioa, kobrea, burdina, zinka, kobaltoa, kaltzioa eta sodioa aipatzen dira. Min ugarirentzako erremedioa dela diote. Honela saltzen dute: "Antioxidatzailea da; hau da, gorputza arazten du. Tonifikazio efektuaz gain, anemiaren, mikrobioen eta hanturaren aurkakoa da. Odol-presioa baretzen duenez, bihotzekoa izateko arriskua murrizten du. Minbizi zelulak eta arterosklerosia garatzea eragozten du. Flabonoide ugari du, baita taninoak eta esentzia olioak ere bai. Medikuek arnas aparatua (eztula, bronkitisa) eta gernu aparatua tratatzeko gomendatzen dute. Bereziki eraginkorra da gernubideak eta prostatitisa, gibeleko gaixotasunak eta giltzurrunetakoak sendatzeko". Itxura horretako aurkezpenarekin nork ez du nahi landare hori etxean?

Anatoli Alikovski urologoak (landare horren bertuteak urteetan aztertu dituenak) dioenez, "gizonezkoen sexu sistema zirikatzen eta adoretzen, libidoa akuilatzen eta ugaltzeko gaitasuna hobetzen ditu eta horregatik antzutasunaren aurkako erremedio naturala da". Ez dakigun da berak egin dituen saioak edo beste lagun batzuekin moldatu ote den.

Euskal Herrian genero bereko sei espezie eta subespezie behintzat baditugu, eta horietako baten ura, *Sideritis hyssopifolia*, mendiko tea izenarekin ezagun xamarra da. Bulgariarraren antzeko eraginik ba ote du? Inork hartzen al du? Zakilixuti galdetu beharko diogu. Argigarria izan daitekeen aztarna bat: genero horretako inorentzako euskarazko izenik ez dut topatu... ●

NABARIDAS

DENA EZ DELAKO MAHASTIA ARABAKO ERRIOXAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Ardoen lurraldea da Nabaridas ingurua (Araba), eta beraz, mahastiak dira nagusi hango paisaian. 2014an, ordea, bertako artadi basoa sustatzeko ideia bati bueltaka hasi ziren herritarrak. Galdera hauxe zen: zer egin basoa hedatzeko, babesteko eta bertako genetika mantentzeko? Udalarekin elkarlanean lursail-trukaketa proiektua martxan jartzea erabaki zuten orduan. "Herriko basoaren hegoaldean utzita zeuden lursailen jabeekin harremanetan jarri eta lur horiek beste batzuengatik trukatzeko proposamena egin zien Udalak", azaldu du Aitor Senar Enekotegi Agenda 2030eko udal teknikariak. Bertako artadi babestuaren azalera handitzea da ekimenaren helburua.

Foru Aldundiko basozainak harrituta hartu zuen lursail batean mahatsondoak kendu eta artea jartzeko eskaera: bizitza osoa mahatsondoetara pasatzeko aldaketak sinatzen pasatu duela, eta hauxe omen kontrako noranzkoan sinatzen duen lehena.

HAMAIKA LURSAIL PRIBATU BASO PUBLIKO BIHURTZEKO BIDEAN

Nabaridasen basoa zabaltzeko egitasmoa ez da ekimen bakan bat izan, dena den. 2014an jasangarritasuna saritzen duen Conama saria jaso zuen Udalak, herrian abian zituzten hainbat proiektugatik: zabortegi baten garbitzea eta inguruaren berreskurapena, basoa hazi-iturri izendatzea, herriko urmaelaren biodibertsitatea babesteko ekimenak... "Sari horietara hainbat ekimen aurkeztu genituen, eta hor hasi ginen gehiago lantzen lursailen trukaketaren ideia ere", dio teknikariak.

Hurrengo bi urteetan, utzita zeuden lurjabeei eskutitzak bidali, lehenengo bilerak deitu eta trukaketak egiteko prozesua martxan jarri zuten. Tramite aldetik bere zailtasunak ditu horrelako proiektu batek, eta teknikariak onartzen duenez, luze joan da prozesua, baina emaitzak lortzen ari dira. "30 bat jaberi bidali genien proposamena, eta horietatik zazpi izan ziren interesa azaldu eta azkenean trukaketak gauzatzera animatu direnak". Horietako batzuk lursail bat baino gehiago zituzten; guztira, 18.108,10 metro koadroko eta interes ekologikoko hamaika lursail pribatu pasatu dira Udalaren jabetzara. Aurten sinatu dira lehenengo trukaketak, eta udalerrian proiektua oso ongi jaso dela ikusita, bigarren trukaketa faseari ekiteko asmoa dute aurrera begira.

ARTADIA BERRESKURATZEN

Trukatutako lursail gehienak utzita bazeuden ere, horietako batean mahastiak zeuden landatuta, eta aldaketa harrigarria izan da. "Kasu hori da agian esanguratsuena, oso arraroa baita eskualde honetan mahatsondoak kendu eta artea jartzea", dio Senarrek. Foru Aldundiko basozainak ere harrituta hartu omen zuen eskaera: bizitza osoa mahatsondoetara pasatzeko aldaketak sinatzen pasatu duela, eta hauxe omen kontrako noranzkoan sinatzen duen lehena.

"Azkenean, karraska edo artadi hauek dira hasiera batean eskualde honetan zeuden baso mota. Gerora, gizakiaren eraginarekin, paisaia guztia eraldatu eta mahastiak dira orain gailentzen direnak", dio teknikariak. Bada, ekimen honi esker, behintzat, leku gehixeago berreskuratuko du bertako artadiak. ●

Galtzaile bihurtzen gara bizitzan aurrera egin ahala

Aritz Galarraga

Gogoan dut argitaratu du Aritz Galarragak, pertsonalki irakurria izaterik nahi ez duen liburu autobiografikoa. Joe Brainardek *I remember* (*Oroitzen dut*) liburuan darabilen formula bere eginda, bizi oroitzapenak katigatu ditu errenkada luze batean, memoriaren mekanismo kapritxosoari bide emanez. Esaldi soilak zenbaitetan, irudi osoagoak beste batzuetan, asmo literarioz onduak, eta orrialdez orrialde pertsonaia bat eraikitzen dutenak. Hitz egin dugu ni-aren literaturaz, aberriaz, Kataluniaz, eta liburuan agertzen diren beste hainbat gairi buruz.

KEPA MATXAIN DANI BLANCO

Biriatuko hilerrian pasa nahiko luke eternitatea Aritz Galarragak (Hondarribia, 1980): "Ez zait lekurik txarrena iruditzen, nahiz eta badakidan gero nahi dutena egingo dutela". Betiko atsedenaldirako ez ezik, elkarrizketarako –eta batez ere argazkietarako– iruditzen zaio toki paregabea, zer esanik ez ilunabarrean: "Han urrunean eguzkia oso modu ederrean desagertzen da". Behin posatzera jarrita, ordea, 1915ean Galipoliko batailan hildako Joseph Eyheramendyren hilobia hautatu du eszenatokitzat. Pozik dabil, eta erruaren zati handi bat liburuari egozten dio: "Ez neukan itxaropen handirik, eta jasotzen ari naizena ederra izaten ari da. Uste dut liburuak lortzen duela konektatzea moduren batera edo bestera irakurlearen memoriarekin, zerbait aktibatzen dio, eta jartzen da gogoratzera". Euria hasi digu, baina jasarik botako ez duen esperantzan zuhaizpe batean babestu eta solasari ekin diogu.

Hauxe duzu bakarkako lehen liburua, baina literaturaren bueltan ibili zara aspalditik: idazle kolektibo, kritikari, zutabegile... egiten duzunaren atzean ia beti sumatzen da asmo literarioa.

Bai, saiatzen naiz gauzak beste modu batera begiratzen. Zutabegintzan –eta kazetaritzan, oro har– jendea aktualitateari oso lotuta sumatzen dut, eta niri aktualitatea ez zait interesatzen, ez behintzat idazteko gai bezala: oso efimeroa da, gaur berebiziko interesekoa dirudiena bihar agian ez zaigu batere interesatuko. Beraz, bai, saiatzen naiz begirada pixka bat altxatzen eta bihar edo etzi ere irakurtzekoa izan daitekeen zerbait idazten. Azkenean, gai literarioak, hunkitzen gaituztenak, ez dira asko. Egiaz, zerbait atenporalagoa egitea oso erraza da: eskatzen du literatura hartzea ezagutza eta esperientzia iturri oso garrantzitsu gisa, hau da, aurrez jendeak idatzi duen hori, eta, batez ere, idatzitako horretatik gaur egunera arte iraun duena. Uste dut hor oso material interesgarria dagoela, eta balia daitekeela gaur egunetik hitz egiteko.

Eta orain, 40 urte bete berritan, zer eta memoria liburu bat argitaratu duzu –nolabait esatearren–. Bizitzako ziklo baten amaieran egin ohi dira memoria ariketak, batek atzera begiratu eta zer kontatua duenean. Une horretan zauden seinale al da?

Bai, nik uste horretatik ere baduela. Edonola ere, iruditzen zait memoria liburu bat edozein unetan idatzi beharko litzatekeela, hasteko eta behin ez dakigulako

80 urteetara iritsiko garen memoria liburu konbentzional bat idatzi ahal izateko. Baina liburua bada zerbaiten itxiera edo dolua. 40 urteak sinbolikoki badira zerbait –bizitzaren erdia, estatistiken arabera–. Stefan Zweigek zioen bezala bizitzaren erdia da igoera moduko bat, eta bigarren erdia, aldiz, jaitsiera.

Aipu hori lehenago ere entzun dizut.
Bai, baina elkarrizketa honetarako propio ekarri nahi izan dudan aipu bat botako dut, edozein unetan, ea harrapatzen duzun [barreak]. Hariarekin segiz, beraz, oraintxe nengoke erdi puntu horretan –askok bizitzaren floria deitu izan dutena–; hau da, oraindik nahiko gazte zahartasunaren keriak ez nabaritzeko, eta jada aski zahar gaztetasunaren inozentzian ez erortzeko. Dantek esaten zuen [barrez]: *Nel mezzo del cammin di nostra vita*. Bada hori, bizitzaren erdian gaude, dena ondo badoa. Eta badago horren dolua, gauzak ixteko gogoa: zein da balantzea? Lehen erdi horri negar egingo diogu, eta ikusi igoera horretan zer izan garen.

Materiala pilatzeko hasi zinen memoria ariketok idazten, gerora zutabeetan edo auskalo non erabiltzeko. Noiz eta zergatik pentsatu zenuen hemen liburu bat egon zitekeela?
Hasieran, oroitzapenak etorri ahala apuntatzen nituen koaderno batean. Ordurako irakurria nuen Joe Brainarden *I remember* liburua. Zirrara modukoa eragin zidan: memoria liburua zen, bai, baina ez batere konbentzionala, eta bere mekanikak harrapatzen zintuen uholde batean, eta eramaten zintuen. Formula ona iruditu zitzaidan zutabeetarako materiala pilatzeko, inolako asmo handiagorik gabe. Halako batean kontuak bolumen pixka bat hartu zuen, ehunka oroitzapen bildu nituen, eta ohartu nintzen bildumak bazeuzkala literaturari egotzi ohi zaizkion ezaugarriak: pertsonaia baten osaketa, peripezia modukoak, eta tonu bat. Oroitzapenen bilaketa aktiboago bat egiten hasi nintzen, argazkiak begiratuz, pelikulak ikusiz, lekuak berriz bisitatuz… Ez da oso bilaketa sakona izan, memoriari utzi nahi izan diodalako bere lan kapritxosoa egiten. Azkenik, lana borobildu nahi izan dut literaturaren elementuak erabiliz, emaitza lan literario gisa identifika zedin, eta ez oroitzapen bilduma soil bat bezala.

Ni-aren literaturaren barruan sartu behar ote dugu, bada?
Gai horrek eman dit zer pentsatua azkenaldian. Kontxo, 20 urte daramatzat jada idazten, prentsan gauzak argitaratzen, eta maiz samar hitz egiten dut nitaz, edo sartzen dut nire itxura daukan pertsonaia bat. Nik, neure burua oharkabean igaro nahi duen pertsona ezdeustzat dudan honek, ustez inolako anbiziorik eta goranahirik gabea naizen honek, zergatik hitz egiten dut hainbeste nitaz? Bada uste dut dela, gaizki ezagututa ere, ondoen ezagutzen dudan gauza ni neu naizelako. Bestalde, ez daukat batere fantasiarik, fikziozko nobela bat idazten hasiz gero agian egingo nuke, baina zientzia fikziozkoa –edo mundu niretzat oso arrotz bat asmatzea eskatzen duena– ez behintzat. Beraz, bizitakoa, sentitutakoa, kontatu didatena, dira nire erregaia. Eta ni-ra jotzen dut, pentsatuz hortik arituz jende gehiagorengana irits naitekela, eta hitz egin dezakedala, finean, gutaz eta inguratzen gaituenaz. Ni-aren literatura egoarekin lotzen da, baina niri ez zait batere interesatzen atzo gertatu zitzaidana besterik gabe kontatzea. Niri gertatuak irakurketa unibertsalagoa baldin badu soilik erabiltzen dut.

Ana Arsuagak aipatu zidan halako zerbait elkarrizketa batean: bere bizitza izan daitekeen anekdota ez zaiola arterako interesatzen. Izan duzu kezka hori liburua idazterakoan –anekdotan geratzekoa–?
Bai. Eta, batez ere, ez zedila irakurria izan gauza pertsonal bat bezala –nahiz eta hala irakurria izango den, ezinbestean–. Ez dut liburu hau publikatu nire bizitza oso berezia dela uste dudalako, baizik eta kode literarioan moldatuta irakurketa unibertsalago bat izan zezakeelako. Nire egoa beste modu batzuetara asetzen dut, baina ez literaturaren bidez: ez dut ulertzen literatura terapia bezala, are gutxiago idazlearentzako terapia bezala –irakurlearentzako ere ez–. Liburu hau ez dut idatzi ez dakit zer trauma gainditzeko –horretarako psikologo batengana joango nintzateke–. Egia da liburu autobiografiko gisa aurkeztu dudala. Baina Flaubertek esaten zuen… [barrez].

Esango nuke orain datorrela aipu madarikatua…
Asmatu duzu [barrez]. Tira, orain ondo bota behar dut: Flaubertek esaten zuen genero autobiografikoa dela genero guztietan faltsuena, hain zuzen ere, zintzotasun irudi bat eman nahi duelako. Horretaz kontziente izanda, eta liburua autobiografikotzat aurkeztuta, irakurketa pertsonala gainditzea nahiko nuke, eta ez geratzea xehetasunean: ez da kon-

tu kitatze bat –bakean nago jendearekin, nik dakidala behintzat–.

Liburua irakurri ahala, bereizi ditut bi ahots mota: oroitzapen soilak, alde batetik, eta oroitzapenen gaur egungo komentarioak, bestetik –gehienetan tonu ironikoan ematen direnak–. Ez al dago tonu ironiko horretan errekurtso kontserbadore bat, oroitzapenen jaulkitze hutsa bere horretan aski ez balitz bezala?
Kuriosoa da, ez dit inork galdetu, baina liburua publikatu aurretik irakurri zutenetako batek komentario baloratibo horiek seinalatu zituen, esanez agian ez zetozela bat liburuaren izpirituarekin. Aipu madarikatua harrapatu duzu, baina hara Julian Barnesek zer esaten zuen: berari oroitzapenak etortzen zitzaizkiola, baina oroitzapen horiei lotutako emozioak ez. Niri bietarik gertatu zait: oroitzapena besterik ez etortzea, baina baita momentuan oroitzapen horri lotutako emozioren bat sentitzea ere –batzuetan garaiko emozioak, eta besteetan orainaldian sortu direnak–. Eta horregatik daude liburuan komentario baloratibo horiek, denboraren perspektibatik oroitzapenak distantzia ironiko batekin ikusten ditudalako batzuetan. Edonola ere, zaila izan da neurria aurkitzea: ez nuen beti gauza bat egin nahi, ez beti bestea ere.

Esan daiteke zeu ohartzerako lumak zaramatzala ironiara?
Bai, zalantzarik gabe. Eta hain zuzen ere hori frenatu behar izan dut liburua norabide horretan gehiegi karga ez zedin. Pasatzen zait zutabeetan, eta edozein giza jardunetan –ahoz zein idatziz–. Interlokutorearen arabera, neure burua frenatu behar izaten dut pisutsuegia ez izateko. Askotan pentsatu izan dut umorea, eta zehatzago ironia, bi ahoko labana dela: zerbait konplikatua desataskatzeko balio duen bezala, balio dezake zerbaiti ez aurre egiteko ere. Saiatzen naiz neurria hartzen. Edonola ere, ezer ez da hain garrantzitsua. Hasteko, gu geu. Norbere burua serioegi hartzen duenak arazo handi bat dauka. Eta hortik hasita, dena: ideologia gotorren edo identitate oso sendoen aro bat baldin badator… beldur handia ematen dit eszenatoki horrek. Zenbat eta identitate gogorragoak defendatu, orduan eta tarte txikiagoa dago askatasunarentzat. Gertatzen da identitate nazionalarekin, sexualarekin… denarekin.

"Gogoan dut euskalduntasuna arazo bat izatera iritsi dela", diozu beste une batean.
Oroitzapen horrek lotura dauka munduaren aurrean beti euskaldun gisara aurkeztu beharrarekin. Batez ere kanpoan, ikusten duzu jendeak euskaldunez daukan irudia noraino den estereotipatua eta klixez betea. Orduan, une batean irits zaitezke nahi izatera zerbait neutroagoa. "Nongoa zara?" galderari erantzutea "X-koa", eta "X" horrek ez bereziki ezer eragitea –oro har, nahiago dut indiferentzia eragin, lilura txoro eta batere funtsik gabekoa baino–. Baina gero iruditzen zait euskaldunok badugula erruaren parte bat, beti gabiltzalako, adibidez, euskara gora eta euskara behera, hizkuntzaren polizia horiekin guztiekin, gauzak zuzenki nola esan behar diren kezkatuago beste ezerekin baino. Oso modu agonikoan bizi dugu gure izatea, bihar bertan desagertuko bagina bezala. Tira, agian bai… eta zer? Denbora eta energia gehiegi galtzen dugu txikikerietan, eta jarrera agoniko horrek ez dakit ez ote duen areagotzen balizko desagertze prozesua. Aldiz, jarrera lasaiagoa bagenu, dramarik gabea, modu naturalagoan biziko bagina, ez dut ezer ziurtatzen, baina akaso…

> *"Niri gertatuak irakurketa unibertsalagoa baldin badu soilik erabiltzen dut*

Herman Melvilleren *Bartleby* ere ageri da liburuan, eta iruditzen zait zeure bizitzarekiko jarreraren deskribatzaile egokia dela hark zioena: "Aukeran, nahiago ez".
Bai, baina gero hala ere egin egiten dut. Kontraesan handi batean bizi naiz: energia oso gutxiko tipoa naiz, baina hala ere badago zerbait, barne indar bat, parte hartzera bultzatzen nauena. Borroka bat sortzen da zure egoera ustez naturalaren –sofan etzanda egotea– eta zerbaiten parte izateko nahiaren artean. Hala ere, parte hartzekotan, oso kanpotik, besteak beste sinetsita nagoelako kanpoko begirada dela pribilegiatua, eta ez zurrunbiloaren erdian dagoenarena. Askotan pasatzen zait Kataluniarekin: jendeak deitzen dit pentsatuz han bizi naizelako eduki dezakedala begirada pribilegiatua hangoarekiko, eta uste dut justu kontrakoa dela.

Liburuak asmo literarioa duen neurrian, badu pertsonaiaren eraikuntza ere. Ez da euskaldun prototipikoa, baina otu zait identifikagarria dela literatur tradizio oso zabal batekin: gizon heldu, desapegatu, ironiko, galtzailea… Badago molde oso ezagun bat hor.
Bai, liburuan zehar osa daitekeen pertsonaiaren emaitza tradizio baten baitan koka daiteke–Thomas Bernhard etortzen zait kolpean burura–. Irakurle gisa, askoz gehiago erakartzen nau tradizio horrek heroien edo irabazleen narratibek baino. Ez zaizkit batere interesatzen, hasteko, ez dakidalako errealitatean parekorik ba ote duten. Nork ikus dezake bere burua garaile gisara bizitzaren kontrako borrokan? Pretentsio handikoa da, eta ez dator bat gehiengoaren bizitzarekin. Gehienok galtzaile bihurtzen gara bizitzan aurrera egin ahala, baita fisikoki ere. Eider Rodriguezek badauka ipuin oso polit bat: hagina usteltzen zaion emakume bati buruzkoa da, nola hil aurretik gorputzaren zatiak hiltzen doazkigun, nola galtzen dugun ilea, forma fisikoa… Galera pilaketa bat da bizitza, beste ezer baino gehiago. Hortaz, inspiragarriagoa zait bere zauriak erakusten dituenaren bizitza, bere garaipenak eta urrezko dominak erakusten dituenarena baino.

Jende asko aipatzen duzu. Asko anonimoki, baina beste zenbait izen abizenez: Santi Leoné, Itxaro Borda, Patxi Larrion, Ibon Rodriguez, Gorka Bereziartua, Beñat Sarasola… Zergatik bereizketa hori?
Omenaldi modukoa egin nahi nien lagunei, lagun literarioei batez ere. Zorte handia daukat ingurune literario oso interesgarria edukitzeagatik, eta komentatu ahal ditudalako nik idatzitakoak, irakurritakoak, haiek idatzitakoak, eta abar. Egunero hitz egiten dugu, eta hori, etxekoekin salbu, ez zait beste inorekin gertatzen. Aukeratzen duzun unetik literatura bizibide –ezen ez ogibide- bezala, hau da, hautatzen duzunean, literaturatik ezin, baina literaturan bizitzea, bada, mundu horretako lagunak oso baliotsuak dira, eta haiekiko aitorpena ere bada liburua. ●

LIBURUA

Bilaketa

ANE URKOLA

HOSTOEN HEZURDURA UNATUA

ANTOLOGIA

BALEA ZURIA, 2021

IGOR ESTANKONA

Laino itsuan zein gauaren erdian, joan zenaren bila edo inoiz izan ez zenaren xerka, nora ote doa Maixa Zugasti (Tolosa, 1973)? Ezin jakin. *Hostoen hezurdura unatua* trinko honen hiru zati bata bestearekin txirikordatuak dira *Isiltasuna*, *Hitza* eta *Zarata*. Isiltasuna izan baitaiteke zantzorik ozenena. Hitzek askotan ezer gutxi diote. Eta zarata izan daiteke, inoiz, Nick Caven errepika "*Do you love me*?" galdetuz.

Cave aipatzen du eta aipatzen du, baita Felipe Juaristi, edo osterantzean Caballero Bonald, edo Baudelaire, edo Margarit. Merezi du liburura ekarritako esaldi bakoitzak, poemarioaren atsegin iturrietarik bat dira poema edo abesti zatiok: Fran Pérez, Sarri, Rodriguez Castelló, María Zambrano... Aipu horien bitartez orrialdeek arnasa hartzen dute, arean astunak eta lausoak baitira piezetako asko, dena gandua, dena memoria, dena nekea: "hostoen hezurdura unatu, udazkenean./ Itxiko ditut begiak/ amets egarriz/ eta oroitzapenez beteko dut hustasuna./ Betiereko azal bakar izango gara,/ gau ilun-ilunean,/ lo hartu berritan".

Maixa Zugastiren unibertsoan etorkizunak berak ere malenkonia puntu bat dauka, ohe hutsaren zapore urdina. *Hostoen hezurdura unatua* itxaroteari buruzko poema liburua dela uste dut, baina azken finean heriotza du esperantza-puntu. Ilargiaz maitemindu zirenen manifestua dirudi uneka: "Jada ez dut giltzarik behar/ errautsen gainean eraikitako etxe honetan sartzeko".

Poema konfidentzialak dira nolabait, baina ez pribatuak. Idazlea ezkutatu da eite klasikoetan eta irudi aski unibertsaletan, eta bere esperientzia lau haizeetara daroa: erneko diren zuhaiska berriak, piano-soinu leuna taberna-zuloan, Gernika bonbapean, hil-kanpaien errepika...

Tonu arre, uherrekin, sakonago eta sakonago eroango zaitu Maixa Zugastik. Apatia moduko batek harrapa zaitzake, ostera, eta lehen aldiz betetako mezuen artean nahasi. Nahiz eta izan estetikoki landua eta nahiz eta egon idatzita txukun-txukun, *Hostoen hezurdura unatua* da errepikapenaren puruz, atmosfera ilunen ilunez, monotonoegia. Poemak izan baitaitezke desberdinak, baina azpiko korrontea betiberdin, beti bat. ●



MUSIKA

Intentsitate eta energia neurtua

KING KONG BABY
SONIC TRASH
LA MOTTA RECORDS

IKER BARANDIARAN

Sonic Trash talde bilbotarra –eta bere aurrekari Ya Te Digo– ezkutuko altxorra da, publikoarentzat ezezaguna. David Honok gidatutako taldeek dozenaka urte daramatzate 90eko hamarkadako altxortegian arakatzen eta tiraka, hori guztia berrasmatu eta energiaz, sentsualitatez eta aberastasunez betetako emaitza lantzen eta erdiesten.

Hainbat urte pasa dira estudioko azken lan luzea (*Latigo*) kaleratu zutenetik. Itzela izan zen lan horren kolpea, kiribildua –taldearen izaerarekin bat datorrena– eta amorrazio zein irmotasunez betea. A zer astindua eman ziguten diskoarekin eta zuzenekoekin! Ordutik, 2015etik, luze jo du itxaronaldiak, nahiz eta tartean *Totem* EPa argitara eman zuten.

Horregatik, ilusioz hartu ditugu *King Kong Baby* osatzen duten hamar kantak, Submarino Records eta Tio Pete estudioetan grabatutakoak. Nabaria da diskoa egiteko denbora hartu dutela eta halakoa da emaitza. Gainera, gai izan dira taldeak barnean duen urgentzia modu neurtuagoan plazaratzeko. *Kalamity (zure zapore berria)* berezia da: lehen aldiz euskaraz abestu dute eta, gainera, Birkit-ek ere parte hartu du. Emaitza? Kantu intrigazkoa, sentsuala, tarteka beltza tarteka kutsu ekialdetarra duena, noise-a eta Flying Nun-en low giroak uztartzen dituena. *Bilbao speed city*-k taldearen marka dauka: presazkoa, iluna, gautiarra, rockeroa eta industriaurrekoa. *Orient Ltd* 90eko hamarkadako indie-rock dotorea da, new wave-etik ere edan du, jostaria eta ospakizunekoa ere bada. *Sexy bass*-ek ere hamarkada hura dauka oinarri, baina indartsuagoa, distortsionatuagoa eta eroagoa da. *Amnesia*-ren introa Stooges-en parekoa da. Jarraian, Velvet eta Cancer Moon-en bidetik, psikodelikoagoa da eta pisutsuago bilakatzen da ilargi paisaiarantz. *Acelerado,* Eduardo Benaventek anfetaminaz leporaino idatziko lukeen rock-and-roll eskizoa. *Kamazotz* rock maltzurra, samba eta Pixies batzen dituen entsalada. *Amarcore* Beast Of Bourbonen tamainako malenkonia arriskutsua eta psikodelia tantak batzen dituen balada. *Cortes* Touch and Go-ren marka diren gitarra zorrotz metalikoek jantzitako post-rocka. Azkenik, *Alma canibal* esperimentu korala. ●

Zerutik gertu

AMETS ARANGUREN ARRIETA

RUPER ORDORIKA
NOIZ: abuztuak 29
NON: Lizoaingo Elizar kulturgunea

Uda hondarreko igandea, bazkalosteko alferkeria, iluntzerako aurreikusiriko plana kili-kolo... Eta Ruperren kontzertua Lizoainen, baina sarrerarik ez. Dena den, joanda ere galtzeko baino, gehiago genuen irabazteko edozein kasutan; kontzertua ez bazen, herria ezagutu, paseoa eta buelta. Baina beti dago esperantza COVID-19-ak baten bat bahitua izanen duela etxean... Utzi digute elizan sartzen, goiko partean, lurrean eserita (gazteak gara).

Sartu eta agertokian gitarra akustiko eta elektriko bana. Sinple baina dotore. Oñatiarra fuerte hasi da gitarra eskutan "Gaur igandea da...". Bere kanta ezagunetan ezagunena (edo bigarrena) denarekin ireki du kontzertua eta Martin Larralde beti agertu ohi da bukaera aldera... Gustatu zait hori. Herri txiki bateko eliza txiki batean kontzertu bat imajinatzean imajinatzen duzuen goxotasun eta intimitate horretan berean geunden murgilduta erabat. Eta modako talde den Tatxers-en esaldi batekin oroitu naiz "Gure herriko eliza, kontzertu toki berria". Leku gehiagotan hala balitz...

Egiari, bihotzei, bideari, haizeari, denborari eta guri guztioi kantatu digu Ruperrek. Aipatu du etxeko denei nahiko liekeela konposatu kanta bat, baina asko dira familian... Oraingoz, gerra garaian Gernikan bizi zen amaren aitari egin dio: Elías Ezkurdiari. Badu zerbait musikari honek, ez dakit ongi esaten zer den, artista egiten duen zerbait. Kanta azaltzen duten esaldi eta esaldi artean gitarraz pare bat akorde jo eta dotore agertzeko gaitasuna du. Ez da talde bateko abeslaria, baizik eta batzuetan bandaz lagunduriko bakarlaria, benetako bakarlaria. Lasai asko betetzen du oholtza bakarrik ahots eta gitarra hutsez.

Bereziki bere sasoiaz mintzo den kanta bat ere eman du, edertasunaz mintzo dena. Azaldu digu bere ustez ez dela posible inork bere sasoitik kanpo deus egitea, baina kanta hau bereziki dela bere sasoikoa. "Ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik" eta koro erraldoi batek hartu du Lizoaingo eliza. Kontzertuko klimaxa, zalantzarik gabe. Intentsitatea jaitsi da horren ondotik, baina ez du horregatik okerrera egin. Soseguz joateko eta zerutik gertu ez omen dela ondo egoten. Azken hori Ciudad Realeko Dionisio Cañasen hitz itzuliak direla ikasi dut gaur, urte luzez Ipar Ameriketan bizi izan zen poetarenak.

Labur, zuzen eta dotore aritu da Ordorika eta ez genuen gutxiagorik espero. "Trikitilariek zioten bezala, deitu berriz ere, etorriko naiz eta". Gu ere itzuliko gara (sarrera aurrez harturik). Ezagunetan ezagunenarekin itxi du emanaldia, nola ez: zaindu maite duzun hori eta baita gorroto duzun hori ere. Ez dakit Ciudad Realen eta Ipar Ameriketan, baina Lizoainen hodeien azpian, sasien gainean eta zerutik gertu ondo egoten da. ●

Hitz gezidunak

**Gaia: musika estiloak*

ZAILTASUN HANDIZ ---------- LARRU

* ---------- ZUHAITZA

IGO

ZAKUR ---------- GABEZIA

BAKARRA ---------- PAUSALDI

GAIXOA ---------- EZIKASI

UREZ GARBITU ---------- ATZERANTZ

GERTAKA-RIAK ---------- FRAN-TZIOAREN IKURRA

TXANTXAZ, BROMAZ ---------- TABERNAKO ZERBITZARI

ATZEMAN ---------- ROENTGEN

* ---------- JADANIK

OIHAL FIN ETA GARDEN

OSMIOAREN IKURRA ---------- NAFARROA BEHEREKO UDALERRIA

GAIZKA PEÑAFIEL

OMEN ---------- AURPEGIAK, BEGITARTEAK

ANTZINAKO ORRI

GAR ---------- ZUREZKO JOSTAILUAK

SEINALEA

* ---------- INFUSIO BIZIGARRI

LEHEN BOKALA ---------- LOTSAGABE

NEKADURA ---------- KONTSONAN-TE ERREPIKA-TUTA

* ---------- ARMA ZORROTZAK

EKARRI ADITZAREN ERROA ---------- URREAREN IKURRA

SUARI DARIONA

SEGUNDO ---------- ...-TAK, ERLOJUAREN HOTSA

GAUZA, KAPAZ ---------- BIHI, GARAU

ARERIO, AURKAKO ---------- NONGO ATZIZKIA

NEWTON ---------- UGARITASUN ATZIZKIA

HORI AHULAK ---------- TENPERATU-RA ALTU

ISPILUAN, IRUDIA ERATU ---------- 100 ERROMA-TARRA

*

EGUZKIA

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	5		4				9	8
		7						
				6				1
			9			1		7
2			5	1	8			6
4		9			6			
9				3				
						4		
1	8				2		6	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Atsegin
2. Aurpegi, begitarte
3. Garmin
4. Arrazoiaren arabera ezin uka daitekeena (pl)
5. Irmo, sendo

EBAZPENAK

5X5:

1. LAKET
2. ABEGI
3. KEMIN
4. EGIAK
5. TINKO

3	5	1	4	2	7	6	9	8
6	9	7	1	8	5	2	3	4
8	4	2	3	6	9	5	7	1
5	6	8	9	4	3	1	2	7
2	7	3	5	1	8	9	4	6
4	1	9	2	7	6	8	5	3
9	2	6	8	3	4	7	1	5
7	3	5	6	9	1	4	8	2
1	8	4	7	5	2	3	6	9

B	E	R	O		R	O	C	K		E	K	I	A						
	L	A	R	U	A	K		I	S	L	A	T	U						
G	E	Z	I	A	K		E	T	S	A	I			N					
	P	O	P		E		K		S		G	A	I						
T	E		A	P	A	R			Z	I	B	A	K	E					
T	U	L			R	A	P			K	A	R							
		O	S				J	A			E	I							
T	A	B	E	R	N	A	R	I		J	A	Z	Z						
	T	R	U	F	A	Z		A	T	Z	I	T	U						
A	Z	A	L		G	E	R	T	A	E	R	A	K						
	O		B		I		O		B		E		I						

Ana Laura Aláez

ARTISTA

"Gizartea tematzen da arteak berehalako eragina izan dezan, eta ez da hala"

"Estetika erradikaleko" eskultorea, dio Wikipediak. Izan ere, Ana Laura Aláezek (Bilbo, 1964) ezohiko materialak eta ikuspuntuak erabiltzen ditu bere lanean. Hilaren 26ra arte du ikusgai, Bilboko Azkuna Zentroan, "Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío" (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik), bere erakusketarik handinahiena. Aitzakia horrekin jo dugu harengana, eta elkarrizketa erdi-biografiko hau jaio zaigu eskuen artean.

UNAI BREA **JOAN SASTRE**

Langile familia batean jaio zinen, horra zure biografiaren balizko hasiera bat.
Hala da, eta harro nago. Izan ere, nire belaunaldian artea, zera artistikoa, ni bezalako pertsonentzat debekatuta zegoela zirudien.

Zergatik?
Generoagatik eta klase sozialagatik. Artea ez omen zegoen langile klasekoon eskura. Bestalde, langile familia batekoa naizela azpimarratu ohi dut, harengandik, eta nire ingurukoengandik, nolabaiteko lanjarrera jaso dudalako. Gauzak gaizki dabiltzalako kexatu beharrean, gauzak egiten saiatu. Esaten zidaten "zoratuta zaude, ez duzu aukerarik edukiko", alegia, arte ederretan jarduteko aukera. Eta, halako batean, "utz nazazue bakean, nik neure bidea egingo dut", pentsatu nuen.

Eta Arte Ederretan matrikulatu, EHUn. Artista, edo eskultorea (hori edozer dela ere), izango zinelako ideia zenuen ordurako?
Ezta hurrik ere. UBI amaitu nuen, eta senak esaten zidan betidanik marrazteko eta margotzeko, hau da, bidimentsiokorako trebea nintzenez gero, Arte Ederren Fakultatean izena eman nezakeela. Aukera hori edukitzea bera ohituta ez nengoen pribilegio bat zen.

"Eskultura" hitza zenuen gogoan? Garai hartan, Euskal Herrian luzea zen zenbait eskultoreren itzala: Oteitza, Chillida, Mendiburu...
Inguruan nuen guztia ikasteko antsietatea nuen, gaztetasunak emana. Hasieran saiatzen nintzen neure burua konbentzitzen nire inguruan estimatzen zenaren ahalik eta antzik handiena zuen zerbait egin behar nuela. Baina igartzen hasi nintzen besteek egiten dutena berdintzea ez dela asegarria, eta kopiatzea erraza dela, baina sentitzea ez dela horren erraza. Hasieratik pentsatu nuen interesgarria izango zela, artista modura, alderrai ibiltzea, gauzak zalantzan jartzea. Ez duzu ondoriorik nahi, nahiago duzu zeure buruari galderak egin, eta,

ESKULTURAREN EUSKARRI BIZIDUNAK

Hainbat astez, Ana Laura Aláezekin hitz egin genuen egunaren bezperara arte, haren bideo-sorkuntza bat egon da ikusgai Bilboko Arte Ederren Museoan: *Portadoras queer: el doble y la repetición* (Queer eramaileak: doblea eta errepikapena). "Izenburuaren 'eramaileak' berba oso berezia da niretzat", azaldu du; "izan ere, 90eko hamarkadaren hasieran egin nuen argazki-erakusketa baten izena da. Beti pentsatu dut pertsonak eskultura-eramaileak garela, eskulturarentzako oinazpiko perfektuak garela". *Portadoras queer* lanean, autozentsuratuta zituen zenbait lan-molde berreskuratu dituela aitortu du Aláezek.

"'Zer esan nahi du?' da artista bati egin dakiokeen galderarik izugarriena. Ez zait interesatzen artea definitzea". Argazkia: Ascii.disko

hortaz, besteen erantzunak ere ez dira baliagarriak.

Zeure eta ez beste inoren bidea urratu duzula agerian geratzen da "Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío" erakusketan. Une jakin bat egon zen, materialen aldetik bestelako moldeekin aritzea erabakiarazi zizun klik bat?

Bai, egon zen une berezi bat: Arte Ederrak amaitu eta New Yorkera joan nintzen, esku hutsik, baina alde egin behar nuelako sentsazioarekin. Jaioterriak, nolabait, kanporatu egin ninduen, galga bat zegoen, unibertsitatean bertan esaten baitzidaten egiten nuena interesgarria zela, baina ez zela eskultura. Eta etxe orratzen hirian, berriz, babestuta sentitu nintzen; ez ateak ireki zitzaizkidalako (ez neukan galeriarik edo halakorik), baina bai ingurukoek ez nindutelako ezbaian jartzen. Eskura neuzkan materialekin lan egiten hasi nintzen; oso material pobreak ziren, ez baineukan aukerarik ohiko material eskultorikorik eskuratzeko, eta, bestalde, egiten nuenak garraiatzeko modukoa izan behar zuen gero, maletan kabitzeko moduko artelanak izan behar zuten. Merkeak eta oso txikiak.

Erakusketan ikusten da zure material kutunetako bat arropak direla...

Hori New Yorkera joan baino apur bat lehenagotik dator. Ikasi nuen lan egiteko ez zela itxaron behar egoera ekonomiko hobe batean egon arte, eta inguruan nuena, edozer zela ere, material bihur zitekeela. Ezin banuen ezer eskuratu, armairua ireki eta han aurkitutakoa lantzen hasten nintzen.

Erakusketan zure ibilbide osoan egindako pieza ugari bildu dituzu, eta elkar osatzen dutela azaldu duzu. Alegia, ez da Ana Laura Aláezek bere bizitzan egindako lanen bilduma hutsa. Ba al dago adierazi nahi izan duzun guztia laburbiltzen duen ideiarik?

Beharbada, oraindik jarraitzen dudala eskultura zer den ulertu gabe. Esan beharra daukat, bestalde, hau ez dela beste erakusketa bat gehiago. Erraiekin egin dut, eta uste dut primeran ordezkatzen nauela.

Esan duzu hasi zinenean, klase sozialagatik ez ezik, generoagatik ere ez omen zegokizula artista izatea. Generoa aldarrikatzea funtsezkoa da zure artean?

Kontua ez da ezer aldarrikatu nahia, hori oso handiustea da. Nik ezin dut mundua aldatu, inork ezin du. Beraz, ez dut generoa aldarrikatzen, besterik gabe nire bizipenaz berbetan nabil. "Aldarrikatu" hitza ez da egokiena; zerbait lortzen duzunean erabiltzekoa da. Akzio-erreakzio. Eta artea ez da horrelakoa, ez nire ustez, behintzat. Izan ere, gizartea tematzen da arteak berehalako eragina izan dezan, "nik hau erakusten dizut eta zerbait gertatzen da", eta hori ez da hala. Ez da hala. Zuk poema bat irakurri, eta horrek zerbait aldarrikatzen du? Ba, agian, pertsona orok eskubidea duela itxuraz ezertarako balio ez duen hori egiteko. "Aldarrikapen" hitzak funtzionalitate kutsua du, eta funtzionalitatea, artean, epe luzeko kontua da. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

ETB: “Diada egin da pandemia garaian, liskarrak eragin ditu, eta gainera dena utzi dute zerri eginda”

Diadako manifestazioan, independentistak ekitaldi amaierako butiflerren odol eskaintzara hurreratzen, ETBko albistegietan

Pasa den larunbatean ospatu zuten aberri eguna Katalunian, “pandemia izugarri baten erdi-erdian, eta mugimendu independentistaren barruan dagoen zatiketa agerian utziz”, ETBko albistegiek nabarmendu bezala. “Parte-hartzaileek, gainera, kristalezko botilak eta edalontziak jaurti dizkiete poliziei, bizilagunen loa aztoratu dute, eta Diada egin den plaza zerri-zerri eginda utzi. Plastikozko zorroak, tabako paketeak, gernu-arrastoak... eta deabruari dei egiten dioten izar sataniko horien pintadak. Magufoakelarre beldurgarria izan da”. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, prentsa-ohar baten bidez jakinarazi du ez dela unerik onena Diadak egiteko. “Orain ez, beste lehentasun batzuk daude”.

Ea ba, esan... patataaaa!



SAREAN ARRANTZATUA

Espainia grafikoki

GOBERNOALEM / TWITTER

Giza garapena



JOSEBA GABILONDO / FACEBOOK

Arropa denda turista ingelesentzat

PASCUONFIRE / TWITTER

ARGIA EGUTEGIA 2022

Egunero efemeride bat.
Burujabe garenez, historia guk ere idatz dezagun.

10€
+4€
bidalketa
gastuak

Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS · 943 37 15 45

JAKOBA ERREKONDO ETA ANTTON OLARIAGA

ARGIA
BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus

Norberaren eguneroko bizitza ilargiaren eta lurraren aroekiko irekita bizi nahi duen ororentzat, gozagarri eta jakin-min asegarri dugu agenda hau.
Gure bizitzako hitzorduak eta gogoan hartu beharrekoak idazteaz gain, landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteko baliatuko dugu. Agendan irakurri ahalko dugu ilargiaren arabera aste bakoitzean lurra nola landu baratzean, fruitu arboletan, lorategian eta basoan: zer erein, zer landatu, nola inausi, nola tratatu, zer uzta jaso, nola txertatu...

AURRE-SALMENTA: **AZOKA.ARGIA.EUS · 943 37 15 45**

14€ +4€ bidalketa gastuak